

Goienkaria

ASTELEHENKO

2008ko Irailaren 15a > Astelehena > VI. urtea > 202. zenbakia > Euro 1

www.goiena.net

"Gakoa da sozietateen gaineko zergan eta errentakoan berezko araudia izatea"

Mari Karmen Gallastegi
Ekonomia katedraduna > 6



G2a Erreileno eta Tostoiaren Kofradia > 23

GIZARTEA Gureak eta Katealegia, ezinduekin lanean > 03

PILOTA Jokin Etxaniz Aspeko kirol zuzendariari elkarrizketa > 21

KULTURA Burning taldeak Aramaion aurkeztu du bere azken lana > 26

KIROLA > MENDIA

Zuhaitz Ezpeleta, Espainiako mendiko lasterketen txapelduna

ASTURIAS Espainiako Kopako azken proba irabazi zuen arrasatearrak atzo goizean Asturiasen, Lavianan

NAGUSI Txapelketa lau probek osatu dute eta hirutan izan da garaile Ezpeleta; Tarragonan, Madrilekoan eta atzokoan

APIRILETIK Apirilean jokatu zen lehen proba Teruelen eta amaiera borobila eman dio Ezpeletak Espainiako Kopari > 15



Zuhaitz Ezpeleta.

Jende ugari batu zen San Martinetako ferian, euriari aurre eginez

Eguraldi txarrak ez zituen bergararrak atzera bota zapatuan, eta San Martin plazan eta Seminarioan jende mordo ibili zen. Herriko plazan 22 postu ipini zituzten, barazki eta fruitu lehiaketan parte hartu zutenak. Seminarioan, berriz, ehun postutik gora zeuden ikusgai.

Nobedaderik ere izan zen aurten. Esate baterako, Muni-be plazan, baseritar jantzi dotoreak eta modernoak zeuden ikusgai. Atzo, domeka, Erreilenoen eta Tostoiaren Kofradiak IX. kapitulua ospatu zuen > 04, 23 eta 26



SAN MARTINETAKO FERIA Eguerdiko inguruan hurbildu zen jende gehien Bergarako plazara barazkien eta fruituen postuak ikustera.

JOSETXO ARANTZABAL

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-05
Elkarrizketa > 06
Iritzia > 07-08
Herriak > 09-14
Kirola > 15-22
Kultura > 23-27
Saillatuak > 28
Irrati-Telebista eta Hitzorduak > 29
Berri-zakua > 30-31
Azkena > 32

ARRASATE > GELMAKO AUZIA

Salaketa, bertan behera

Epailleak bertan behera utzi du Gelmako etxebizitzaren inguruan Inazio Lakuntza Arrasateko alkate ohiaren aurka jarritako salaketa. Lakuntzak salaketa jarri zutenei publikoki barkamena eskatzea eskatu die. > 04

FUTBOLA > PREFERENTEA

Mondrak 2-1 irabazi zuen atzo

Ibarreko futbol taldeek denboraldi berriari ekin diote aste bukaeran. Preferente mailan, Mondrak 2-1 irabazi zion atzo Mundarori; Aloñak bina berdindu zuen etxean Idizabalen aurka eta UDak bana Berio-ekin, Donostian. > 16

SUPER AMARA

DENAK GUTXIAGO BALIO DU

BERGARA. San Lorenzo Poligonoa. Amillaga kalea, 18 Bezeroentzako Aparkalekua



ALMACENES ARRASATE

FAGOR, ASPES, EDESA eta MERKATUKO MARKARIK ONENAK.
Etxetresnetan sekulako eskaintzak!

Orain erosi, eta ordaindu sei hilabetean interes barik.



BERME
2
URTE

% 25 merkeago

A+ Saillapen energetikoa

CFS-112 (850 X 1125 X 600) 451 € - 75.317 pta
CFS-126 (850 X 1260 X 600) 485 € - 80.995 pta
CFS-156 (850 X 1560 X 600) 530 € - 88.510 pta



BERME
2
URTE

185
X
60
X
60 mm

A Saillapen energetikoa

HOZKAILUA AFC-185

405 € 67.635 pta



BERME
2
URTE

1000b/min
8 Kg

A+ Saillapen energetikoa

GARBIGAILUA F-2810

430 € 71.810 pta



BERME
2
URTE

1000
b/min
6 Kg

A+ Saillapen energetikoa

GARBIGAILUA 3F-1610

330 € 55.110 pta



BERME
2
URTE

1200b/min
7 Kg

A+ Saillapen energetikoa

GARBIGAILUA ALF-1127

365 € 60.955 pta



UDAZKENEKO
ESKAITZA
BEREZIA

%50-eko
DESKONTUAK!!

3 fokoko indukzioa IF - 3 S/X edo 4 fokoko indukzioa IF - 4 S/X



Lehen:

779 €

Orain :

575 €



BERME
2
URTE

800
b/min
5 Kg

A+ Saillapen energetikoa

GARBIGAILUA ALF - 108

275 € 45.925 pta

Europar Batasunaren arautegiak ezartzen duen batza besteko energia kontsumoaren arabeko energia aurrezteak.

A+ >>> 70%
A >>> 45%
B >> 25%

Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.

Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.
Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.

Kataide poligonoa 3 • Arrasate Tel.: 943 77 13 52 / 943 77 00 34 Faxa: 943 77 13 13

Ordutegia: 09:00-13:00 / 15:00-20:00 ZAPATU GOIZETAN ZABALIK

ASTELEHENKO
Goienkaria
astlehenean, aste bukaera osoa

Harpidedunen txokoa
iraileko zozketa

PARTE
HARTZEKO

SMS 5533
harpidetza@goiena.com
Tel.: 943 08 10 50

Aquarium-erako sarrerak



Bidali AG SARRERAK 5533 zkra

KAMISETA + POLTSA



Bidali AG KAMISETA 5533 zkra

CD-IRRATIA STEREO



Bidali AG CD 5533 zkra

AGko
HARPIDEDUNENTZAT
SOILIK

Oraindik harpidedun ez bazara, anima zaitetz!

Tel.: 943 08 10 50

SARI NAGUSIA

PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA

ARBELAITZ JATETXEAN
BI PERTSONANDAKO AFARIA

Arbelaitz
ARBELAITZ • DONOSTIA

Zozketan sartuko dira: 08-07-22tik 08-09-25 ra jasotakoak

SMSaren kostua: 0,60 euro + BEZa dei bakoitzeko.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: harpidetza@goiena.com

GIZARTEA > EZINDUAK LANEAN

Lanerako beste edozein bezain gai direla erakutsiz

GUREAK Adimen urritasuna duten pertsonak lanera bideratuz gizartean integratzea da hainbat sektoretan diharduen Gureak enpresaren helburu nagusia

KATEALEGAI Ezindu fisikoak, sentsorialak eta gaixo mentalak dira Aretxabaletan, Oñatin eta Bergaran lantegiak dituen Katealegaiako langileak

HARREMANAK Lanerako gaitasuna ez ezik, elkarren arteko harremanak ere garatzen dituzte langileek elkarri euren jardueretan laguntza eskainiz

KANPORA Urritasunak dituztenak lantegi berezietan dihardute eta bestelako enpresek apustua egin eta horrelako langileak enplegatzea falta da

IRATI AGIRREAZALDEGI > DEBAGOIENA
Nahi izatea gai izatearen parte da eta ezintasunak eduki arren lanerako gogoia dutenek euren gaitasuna erakusten dute egunero ibarreko hainbat lantegitan.

Gureak enpresa da ezinduei lanerako aukera ematen dienetariko bat. Euren helburu nagusia da lanera bideratzearen bitartez adimen-urritasuna duten pertsonen integrazio soziala lortzea. Gureak enpresaren baitan hainbat sektore daude. Gure ibarretan Bergarako eta Arrasateko automobil-industria lantegiak daude; Arrasaten Gupost, posta eta banaketa lanetarako; eta Oñatin Belatxarako gasolindegian Gureak taldeko langileak daude.

Bergaran, Labegarrietako industria gunean dagoen Gureak lantegian 78 langile daude; 38 asistentzia-erregimenean eta gaitasun-erregimenean eta Arrasaten 85 inguru. Gehienak ezintasun intelektualak dituztenak, gaixo mentalak, baita gizarte-bazterketarako arriskua dutenak ere.

MUNTAKETA LANAK

Javier Barrero, Bergarako tailerreko arduradunak esan digu zer egiten duten lantegian: "Katalizatzaileerako eta direkzioerako piezak eta autoendako faroak egiten ditugu besteak beste. Beti ere ekoizpen eta kalitate exigentzia guztiekin. Izan ere beste edozein enpresaren neurri berean eskatzen digute guri ere".

Buru-belarri lanean aurkitu genituen Bergarako Aitziber Baskaran eta Oñatiko Joseba Aranburu. Lanera gustura joaten direla esan ziguten: "Gustura etortzen gara denetarik egiten dugulako. Lankideekin ere ondo moldatzen gara eta elkarri laguntzen diogu norbaitek lanak amaitzeko zailtasunik izanez gero. Lanean ez ezik kalean ere ibiltzen gara lankide batzuekin", esan ziguten.

Langileen artean ezintasun eta lanerako gaitasun maila ezberdinekoak daude eta pixkanaka saiatzen dira, erregimen okupazionalatik lan erregimenera pasatzen.

Langileak nola moldatzen diren galdetuta Javier Barreroren esanetan, "ikastea kostatzen zaie, lan berrietan hasia. Behin



MUNTAKETA Gureak enpresako Bergarako langileak muntaketa lerroan lanean; auto-industriarako egiten dituzte lanak.

L.K.

ikasitakoan automatikoki egiten dute guztia, modu ordenatuan. Gainera, marrazkiak eta irudiak ipintzen ditugu lana nola egin behar duten azalduz eta kolore eta zenbakiak ere jokatzen digu lana errazteko".

Lanerako ez ezik harremanetarako gaitasuna ere garatzen dute lantokietan. "Lanean hasi aurretik apenas etxetik irteten ziren batzuk. Orain lanera etortzen dira eta lankideekin koadrila osatzen dute, aisialdi taldeetan elkartzen dira, KZgunera edo liburutegira joaten dira...", esan digu Javier Barrerok

Garai batean enpresak lanerako aukera baino ez zien ematen, baina legea, gizartea eta kultura aldatu ahala gauzak aldatu egin dira. "Saiatzeko gara aukera pertsonalizatua eskaintzen, eta galdetzen zein diren bakoitzaren helburuak. Guk erraztasunak ematen dizkiegu helburu horiek lortzeko", esan digu Gureak lantegiko Irantzu Arangurennek.

Aukera horien artean daude erregimen okupazionalan daudenei lanaz gain beste jardueretarako ematen dizkietenak. Lan orduetako batzuk beste jarduerak batzuetan ematen dituzte: irakurtzen, idazten, eskulanetan, ordenagailuan...

EZINDU FISIKO ETA SENSORIALAK

Katealegia ezindu fisikoendako kalitatezko lanpostuak sortzea eta mantentzea helburu duen enpresa da eta gure ibarretan hiru lantegi ditu: Bergaran, Oñatin eta Aretxabaletan.

"Ezindu fisikoak eta sentsorialak dira batik bat gure langileak, eta azken urteotan gaixo mentalak ere; minusbalotasuna %33tik gorakoa dutenak. Gehienek ez dute aurrez formaziorik, hortaz, hainbat motako lanak egiten ditugu: elektronika arlorako, mekanizatuak, estanzio lanak, muntaia...", azaldu digu Bittor Andonegi Katealegaiako zuzendari komertzialak.

Bergaran Fagor Electronica-arendako zirkuituak muntatzen dituzte. Oñatin eta Aretxabaletan Tesa sarrailla enpresarendako lanak egiten dituzte. Oñatin baita ere Polmetasarendako mekanizatuak eta Ulmarendako lan batzuk, eta Aretxabaletan Copreirendako.

Katealegaiako Aretxabaletako tailerreko arduraduna da Jose Antonio Perez eta 55 langileen artean ehuneko handi bat ezindu psikikoa da. "Ezintasun psikikoak dituztenak lantaldean integratzen ahalegindu behar gara. Izan ere, ohiko lantegi batean ez lukete behar besteko arreta izango. Gainera, tratamendua egiten dute buruko gaitzandako. Lantegian buruko gaitzak dituzten gazteei ezintasun fisikoak dituzten helduagoek asko laguntzen diete", azaldu digu Perezek.

Elkarri ez ezik enpresatik ere ematen diete laguntza. Perezen esanetan, "ahalegintzen gara lanpostua eta eginbeharreko lana

ezintasunera egokitzen. Esaterako, hanketan arazoak dituen langile batek ezingo du lan bat egin zutik egoteko dena".

Euren lana ez da askorik ezberdintzen beste edozein muntaia tailerretako lanarekin. "Beste edozeinek adina lan egiten dute eta agian gehiago. Gainera, euren lanak egon ezean gainera izaten ditugu lan eske. Hala ere, lana ematen diguten enpresetan oraindik lan zehatzetarako zalantza izaten dute gai izango ote diren", dio Perezek.

Lantegi bereziak dira, jende jakinarendako eta beste enpresek ere ezinduek izan behar dituzte euren langileen artean. "Falta da enpresa handiek apustu hori egitea. Gure lantokietan ibilitako hainbatek egin dute enpresa arruntetarako jauzia, baina gutxi", esan digu Barrerok.

Lantokian, euren nagusiei eta bezeroei erakutsi diete lanerako gai direla. Orain, gaitasun hori gizarteak aitortzea da erronka.

BERGARA > SAN MARTINETAKO FERIA

Bergararrek aterkipean ikusi behar izan zituzten fruitu, barazki eta bestelakoak

Baserritar jantzi politak eta dotoreak erakutsi zituen Munibe plazan Anezkak

San Martin plazan 22 postu egon ziren eta seminarioan, berriz, 100 postutik gora

ARRITXU BARRUSO > BERGARA

Aterkipean pasatako feria izan zen aurtengo San Martinetako feria. Goizean goiz euria egin zuen eta pare bat orduz zeruak argitu egin ziren arren, berehala itzuli ziren euri zaparradak eguerdi alderako. Euriak, baina, ez zituen bergararrak etxean geldiarazi eta 13:00ak inguruan San Martin plaza eta seminarioa jendez betetzen hasi ziren.

Izan ere, bazegoen zer ikusi, erosi eta dastatu aurtengo ferian. San Martin plazan 22 postu zeu-



Anezka jostun eskolako ikasleek egindako diseinuak atera zituzten Munibe plazara.

JOSETXO ARANTZABAL

den: 14 barazkienak eta zortzi fruituenak. Horrez gain, seminarioan baserriko produktuekin lotutako beste 100 postu inguru zeuden ikusgai. Baserritar batzuek kexu ziren eguraldiak

lagundu ez zirela, eta krisiaren eragina ere aipatu zuen batek edo bestek. Aurten gainera izan zen nobedaderik; postu berezia ipini zuten Munibe plazan, arrakasta handia izan zue-

na, gainera. Bertan, Anezka jostun eskolako ikasleek egindako baserritar jantzi dotoreak zeuden ikusgai. Horieta hiru, gainera, bergarako Udalarari oparitu dizkiote.

Sariak

BARAZKI LEHIAKETA

Jose Manuel Zabalegi (Martutene)
Tomas Larrañaga (Antzuola)
Esosi Etxeberria (Soraluze)

FRUITU LEHIAKETA

Urtza Sarrionandia (Igorre)
Sonia Isasi (Iurreta)
M^a Karmen Salterain (Markina)

GAZTA LEHIAKETA

Gaspar eta Pui Arrieta (Araia)
Aizpea Elkarte (Olaberria)
Joxe Ramon Arrieta (Antzuola)

Odoloste dastatzea izan zen aurtengo San Martinetako ferian beste arrakasta. Herriko hiru harakinek odolosteak eskaini zituzten doan eta Udalar lehia- ketara ateratako San Martin plazako txosnan saldu zituzten. LAB sindikatuak hartu zuen txosna eta eguerdi ingururako odoloste guztiak amaituta zeuzkatela azaldu zuten. Egia esan ilara luzeak egin behar izan zituzten odolostea dastatu nahi zutenek.

ARRASATE > EPAILEAK BERTAN BEHERA UTZI DU LAKUNTZAREN KONTRAKO AUZIA

Lakuntzak duintasun politikoa eskatu du haren aurkako auzia bertan behera geratu ostean

Bergarako epaitegiko instrukzio epaileak irailaren 4an aurkeztu zuen epai ebazpena; arau-hausteen gaineko frogak nahikoa ez dagoela azaldu du

ARRITXU BARRUSO > ARRASATE

Bergarako epaitegiko instrukzio-epaileak bertan behera utzi du Gelmako etxebizitzaren inguruan Arrasateko alkate ohi Inazio Lakuntzari ipinitako salaketa. 2005eko azaroan Ezker Batua alderdiko zinegotzi Ander Rodriguezek sala-


keta bat aurkeztu zuen Bergarako epaitegian orduko Arrasateko alkate Inazio Lakuntzaren, Arrasateko alkate ohi Jose Maria Loitiren eta Obenerrekako enpresaburu Jesus Guibertaren aurka. Salaketa horretan Lakuntza, Loiti eta Guiberti ondorengo hiru delituar

leporatzen zitzaizkien: kohetxo (funtzionario-eroskeria), diru publikoa bidegabe erabiltzea eta prebrikazioa.

Bada, Bergarako epaitegiko instrukzio epaileak salaketaren epai ebazpena aurkeztu zuen irailaren 4an. Bertan adierazten da

"egindako azterketen ostean baieztatu daitekeela ez dagoela salaturako arau-hausteen gaineko nahikoa frogak". Hori horrela, epaileak, behin behineko, salaketa bertan behera utzi du.

Hori jakin ostean, Lakuntzak prentsa ohar baten bidez duintasun politikoa eskatu du: "Aitortzen dut politikaren joko gogorra dela. Baina are gogorragoa da, akusazio pertsonalen eta salaketa publikoen joko batean bilakatzen dena. Ez da hori nire tankera". Era berean, salaketa ipini zutenek publikoki barkamena eskatu beharko luketela uste du Lakuntzak: "Asko eskertuko nuke zuzenketa publiko bat. Alderdi politiko askok behin eta berriz esaten dute politika ez dela judizializatu behar, eta argi dago eurak kontrakoa egiten dutela. Egia esan ez diete inongo faborerik egiten inori".



Inazio Lakuntza.

GOIENKARIA



skunkfunk
people do funk

SKFK FALL WINTER 08/09
www.skunkfunk.com

Etor zaitetz Iruña, Gasteiz edota Bilboko **JUNGLEFUNK** dendarara eta ezagutu **SKUNKFUNK AW08** kolekzio berria

www.skunkfunk.com



GAZTEAK > UDAL ORDEZKARIEKIN BILERA EGIN ZUTEN

Behin-behineko gaztetxea izango da San Martineko etxea

Besteak beste, zaratari eta ordutegiari buruzko baldintzak beteta erabili ahal izango dute gazteek San Martineko ermita ondoko etxea

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Gaztetxearen inguruan erabakia hartzeko asmoarekin bilera egin zuten egunean, Oñatiko udal ordezkariak eta Gazta Batzarreko kideak. Ordu eta laurden bilduta egon ondoren, behin-behineko adostasun batera heldu ziren bi aldeak: San Martineko ermita ondoko lokala erabiliko dute gazteek behin-behineko gaztetxe modura. Bileramaieran baikor agertu ziren

bi aldeak lortutako adostasunarekin. "Lehen pausua eman dugu, eta San Martinen geratuko gara. Dena den, hemendik aurrera beste hainbat bilera egingo ditugu, behin betiko adostasun batera heltzeko asmoarekin", esan ziguten Gazte Batzarreko ordezkariak. Era berean, gazteek esan zuten San Martineko lokala ez dela oso handia (behean hiru logela ditu, eta goian gela bakarra), eta

barruan txukuntze lanak egin beharko dituztela. "lokala ez da oso duina, baina oraingoz mol-datuko gara".

Lurdes Idoiaga alkateak esan zuen lokalak erabiltzearen baldintza batzuk bete beharko dituztela "besteak beste, zaratari eta ordutegiari" dagozkionak.

Bi aldeek hurrengo bilera urriaren 1ean egingo dute.

GOSE GREBA BERTAN BEHERA

Egueneko bilea bukatu ondoren, plazan jarrita zituzten kanpin dendak jaso eta gose grebarekin bukatzea erabaki zuten Gazte Batzarreko kideak.



Bileran egiten zuten bitartean gazte asko bildu zen udaletxeko arkupean.

IKER BARANDIARAN



Jonan Fernandez zapatuko aurkezpenean.

M.B.

Jonan Fernandez > Baketik zentroko zuzendaria

"Zerbaiten bila dabilzanek irakur dezakete liburua"

M.B. > ARANTZAZU

Baketik zentroan ekitaldi berezia egin zuten zapatuan. Alde batetik, ikasturte berriaren nondik norakak aurkeztu zituzten; eta beste alde batetik, Jonan Fernandezek *Vivir y Convivir. Cuatro aprendizajes básicos* liburua aurkeztu zuen. Ekitaldia hasi aurretik egin genuen berba harekin.

Zeri buruzkoa da idatzi duzun bigarren liburua?

Egiten ditudan hainbat bilaketen inguruko liburua da. Liburuaren atzean galdera bat dago: zer da gizakia izatea? Hortaz, galdera horri erantzun nahian oinarritako lau ikaskuntza lantzen ditut: guztiok gara mugatuak; guztiok dugu eskertzeko zerbait; guztiok dugu kontzientzia; eta guztiok dugu duintasun berbera.

Liburuan azaltzen dut lau ikaskuntza horiek garrantzitsuak direla egunerokotasunean: familian, bikotekidearekin, seme-alabekin...

Hitzaurrea Jose Antonio Marina filosofoak idatzi du. Zer irakur daiteke han?

Egokiena norberak irakurtzea da; baina liburuaren gaineko iritzia ematen du, batez ere, liburuan gehien gustatzen zaiona azpimarratzen du.

Nori gomendatuko zenioke liburua?

Zerbaiten bila dabilen edonori gomendatuko nioke nire liburua. Egunerokotasuneko kontuetan hobetu gura duen edonork irakur dezake. Era berean, edonork ondo ulertzeko moduan idatzi dut.

Baketik zentroko ikasturte berria aurkeztu duzue. Nola izango da?

Ikasturte trinkoa izango da: hiru kurtso ezberdin emango ditugu; antzerki foruma egiten jarraituko dugu umeekin; eta esku artean ditugun proiektuak lantzen jarraituko dugu.



Erosten jakin:
ZURE FAMILIARENTZAT ONENA AUKERATU

 **EROSKI**
zurekin

Atzo, domeka, Bergaran izan zen Mari Karmen Gallastegi ekonomilaria eta Jaurlaritzako sailburu ohia, Erreileno eta Tostoi kofradiakoek eskainitako omenduan. 17 urterekin jaioterria utzi zuen eta Bilbon, Ingalaterran eta AEBetan ikasi ondoren, Sarrrikoko unibertsitatean hasi zen eskolak ematen. 1991. urtean Ekonomia sailburua izendatu zuten.

Mari Karmen Gallastegi > Ekonomilaria eta Jaurlaritzako sailburu ohia

"Gakoa da sozietateen gaineko zergan eta errentakoan berezko araudia izatea"

MIRIAN BITERI > BERGARA

Mari Karmen Gallastegik (Bergara, 1945) txikitako oroitzapenetaz eta Bergarako San Martin jaietaz hitz egiten du ondorengo lerroetaz. Horretaz aparte, egungo egoera ekonomikoaren aurrean hartu beharreko hainbat neurri aipatu du.

Atzo, domeka, omendua izan zinen, Erreileno eta Tostoi kofradiaren partetik. Pozgarria izango da norberaren herrian omendua izatea... Zer sentitzen duzu?

Poz-pozik nago, baina kofradiak eskaini didana ez dudala merezi iruditzen zait. Bergara nire herria da eta txikia nintzeneko oroitzapen ahaztezinak ditut. Herria maitatzen eta estimatzen irakatsi ninduten. Gure aita bergarra izateaz harro zegoen eta izandako hiru alabei herriko patrimonio fisikoaz eta kulturalaz harro egotea erakutsi zigun. Bergara oso berezia da eta beraz, nire herritik datorren edo zer gauza ongi etorria da.

Askotan etortzen zara Bergarara?

Orain dela bi urtera arte askotan etortzen nintzen ama eta familia zati bat Bergaran zegoelako. Orain ama gurekin dagoenez, Bizkaian, gutxiago etortzen naiz. Gainera, dagoeneko gurekin ez dauden pertsonekin lotutako oroitzapen garrantzitsuak ditut eta oraindik ezin izan dut Bergarara iritsi eta gure artean ez dauden pertsonetaz gogoratzeak eragiten didan ezinegona kendu.

San Martin jaietan etortzeko ohitura duzu? Zer oroitzapen dituzu txikitik bizi izandako jaietaz?

San Martin Agirre oso santu garrantzitsua izan da guretako, haren jaioterriaren gainean grina handia bizi izan genuelako. Inoiz ez genuen zalantzarik izan, noski. San Martin jaiak uda amaierarekin bat etortzen ziren eta oso gustuko genituen. Gainera, su artifizialak plazan ikusteko aukera bakarria eskaintzen zuten eta beraz, ez ohiko gertae-ra magikoa zen.

Ospakizunak alde batera utzita, nola ikusten duzu gaur egungo ekonomia?

Oso momentu konplexuan dago egoera ekonomikoa. Ekonomi politikei dagokionez, bat etorri dira gestioa izugarri konplexua izatea eragin duten hainbat



Erreileno eta Tostoi kofradiak Mari Karmen Gallastegi omendu zuen atzo, Bergaran.

JOSETXO ARANTZABAL

faktore: kreditu-krisia, inflazioa, petrolioaren prezioaren igoera, likidezia eza edo higiezinaren krisia. Kanpo eta barne-faktore asko dira, langabeziaren eta interes-tipoen igoera ekarri dutenak eta herritarren ongizatean eragin txarra dutenak.

Benetan krisian gaudela uste al duzu?

Nire ustez, krisiaren edo dezelazio ekonomikoaren gaineko eztabaida semantikoa artifiziala da. Krisian gaude eta Euskadin gure egoera, zorionez, Espainiako gainontzeko tokiena baino hobetagoa da. Gaur egungo egoera AEBetako krisiarekin eta petrolioaren prezioaren izugarriko igoerarekin hasi zen eta horrek azken hamarkadan izugarriko garrantzia hartu duen produkzio-alorrari eragin dio azkenean, higiezinaren alorrari; eta zeharka beste jardueren ekonomikoetan eragina izan du.

MOMENTU KONPLEXUA

"Oso momentu konplexuan dago gaur egungo egoera ekonomikoa"

ETORKIZUNA

"Aldagarri makro eta mikroekonomikoek oraindik okerrera egin dezakete"

NEURRIAK

"Abian jar daitezkeen neurriak instituzio eta politika fiskaleko izaerakoak dira"

Euskadin Espainian baino hobeto gaudela diozu. Zergatik?

Hala da. Euskadin apur bat hobeto gaude hazkunde ekonomikoari eta langabezia tasari dagokionez. Alde horren arrazoiak bat da gure ekoizpen alorrean eraikuntzak ez duela horrenbeste pisu. Baina, badaude beste hainbat arrazoi. Berrikuntzan, teknologian eta ikerketetan egindako inbertsioak alde jokatzeko ari dira eta gure erakundearen aurrekontu-superabita koltxo moduan balio dezake. Enpresariak, kontsumitzaileak eta langileak argi izan behar dute txarto pasa behar badugu ere, krisia erabil dezakegula etorkizunean mesede egingo dizkiguten erabakiak hartzeko.

Okerrera iristear dago?

Aldagarri makro eta mikroekonomikoek oraindik okerrera egin dezakete baina okertze horiek ez dira oso handiak izango. Interes-tipoak mantendu dai-

tezke eta horrek familia eta enpresa asko lagunduko lituzke. Petrolioak jaisten jarraitzea ere oso ondo egongo legoke. Hala ere, 2009ko erdialdera arte neurriak hartzeko garaia izango da.

Euskal enpresek langileak behar dituzte eta kanpora jotzen dute langile kualifikatu-bila. Hemen ez dago nahikoa?

Beti ematen dira lan eskuaren eskaintzaren eta enpresen aldetik langileen eskaeraren arteko desorekak. Zaila da desoreka ekiditea gazteen formazioa planifikatzen den arren. Baina, lan merkatuaren beharretara begira planifikatzen formazioa inportantea da desorekak gutxitzeko.

Zapateroren Gobernuak hartutako neurriak eraginkorrak direla esango zenuke?

Ez dut uste txarto daudenik baina ez dira nahikoak. Gainera, lidergo gogorrak behar dira gaur egungo egoeretan eragile ekonomikoek etorkizunean konfiantza izan, inbertsioak egin eta kontsumitzen jarrai dezaten. Errealitatea onartu eta aldi berean konfiantza helarazi behar da.

Zer egin daiteke egoera horren aurrean?

Eragile asko kanpokoak direnez ukitu ezin daitezkeen aldagaiak daude. Aurrera eraman daitezkeen neurriak instituzio eta politika fiskaleko izaerakoak dira. Baina, lehen esan dudana moduan, eremu ekonomikoan, lidergo sendoa, indartsua eta sinesgarria behar da. Superabit publikoak erabili behar dira inbertsio publikoak jaitzi ez daitezkeen, eta administrazioek ez dute arriskua duten jardueren ekonomikoak oztapatu behar. Eusko Jaurlaritza eta Diputazioak bide onetik doaz.

Zer diozu Europako Batasunak Kontzertu Ekonomikoaren gainean ebatzita buruz?

Ez dago zalantzarik egunean hartutako erabakia ospatzeko dela. Euskadiko autogobernuaren Kontzertua gakoa da; ekonomia eta finantzak dena ez badira ere, funtsezkoak dira, horiek gabe zaila da eta euskal herritarren ongizatea mantentzea edo hobetzea. Sozietateen gaineko zergan eta errentakoan berezko araudia izatea oso garrantzitsua da, diputazioek politika ekonomikoa eta fiskala egiteko aukera izan dezaten.

oharrak eta deialdiak

BERGARA

> Agorrosin itxita dago, lan batzuk egiteko

Udal Kirol Zerbitzuak jakinarazi du bainuetxea itxita egongo dela irailaren 21a arte, konponketak egin behar dituztelako. Hilaren 15etik 21era, kirol eremu guztia egongo da itxita.

ARRASATE

> 1958an jaiotakoek ospakizuna egingo dute

1958an jaiotako arrasatearrek kinto ospakizuna egingo dute azaroaren 8an, Baster-Alde jatetxean, eta dagoeneko badago izena emateko parada. Horretarako, 60 euro sartu behar dira Euskadiko Kutxako honako kontuan: 3035 0001 57 0010112788.

BERGARA

> Adineko ezinduek zaintzen dituztenendako

Sendian programaren barruan, adineko ezinduek zaintzen dituzten familiendako honako ikastaroa antolatu dute: Zaintzailearen higie posturala. Mobilizazioa eta transferentziak. Irailaren 22tik 24ra izango da, erretiratuaren etxean. Izena emateko, deitu Udalgazarte Zerbitzuetara (943 77 91 65).

ARRASATE

> Katekesiko lehenengo mailan izena emateko

Etzi, eguaztena, eta hilaren 18an, eguena, eman ahal izango da ize-

na katekesiko lehenengo maila egiteko. Arrasateko parrokia eta eliza-elkarte guztietan egin daiteke, 18:00etatik 19:00etara.

BERGARA

> Udal Euskaltegian matrikula egiteko

Zabalik dago Bergarako Udal Euskaltegian matrikulatzeko epea. Maila eta ordutegi guztiak. Argibideak: 943 76 44 53 / berg.eusk@udal.gipuzkoa.net.

BERGARA

> Saskibaloia: mutil gaztetxoei deialdia

Infantil mailako gaztetxoek (1995-96an jaiotakoek) eguaztenean hasiko dira entrenamenduetan, Mariaren Lagundian, 17:30ean.

ARETXABALETA, ESKORIATZA

> Leintz Udal Euskaltegian matrikulatzeko

2008/09 ikasturterako matrikula egin daite-

ke Leintz Udal Euskaltegian. Maila guztietako ikastaroak eta ikastaro bereziak emango dituzte. Talde jakinendako -dendariak, gurasoak, etorkinak...- eskolak ere badaude. Argibideak: 943 79 21 68 / www.udaleuskaltegiak.net.

ESKORIATZA

> Helduendako margo ikastaroa dago

Helduendako margo ikastaroa antolatu du Udalak. Urrik ekainera izango da, zapatuetan, 14:30-17:30. Izena kultura etxean eman behar da, eta 95 euro da.

BERGARA

> Pintura eta marrazketarako ikastaroa, Beartekin

Beart elkarteak ume eta gazteendako margo eta marrazketa ikastaroa antolatu du. Bi aukera daude: aste barruan edo zapatu goizetan. 653 71 53 82 (Mayra) / 626 73 38 79 (Ainhoa).

BERGARA

> Jardun euskara elkar-teak, hainbat ekintza

Jardunek hainbat ekintza antolatu ditu: Txapligu eta Txiskrila-bi aisialdi taldeak; bertso, trikiti eta dantza eskolak; Berriketaren egitasmoa, hika-lagunarekin; euskara errefortzuak... Izenematea zabalik dago Jardunen (Errotalde jauregia), hilaren 26a arte.

ARRASATE

> Hainbat ikastaro, Ekin Emakumeekin

Ekin Emakumeak elkarteak eskulan eta orratz-lan ikastaroak antolatu ditu datotzen hilabeteotarako. Izenematea eta argibideak: 651 70 79 36 / 943 79 83 70.

BERGARA

> San Xosepe Abesbatza-ren entseguak

Etzi, eguaztena, hasiko dira entseguekin, erretiratuaren egoitzan, 17:30ean.

ARETXABALETA

> Margogintza sortzaile ikastaroa

Margogintza sortzaile ikastaroa antolatu du Jaiki elkarteak hilaren 20rako, zapatua, 10:00-13:00 eta 16:00-19:00. 15 euro da. Izena emateko azken eguna hilaren 15a da. 635 70 50 68 / jaikielkatea@yahoo.es. Hainbat dantza jarduera ere badaude aukeran: dantza libre topaketak, munduko dantzak eta Jam saioak (inprobisazioa).

etxeko leihotik



Edu Mendibil > emendibil@goiena.com

Albisteen Ramadana datorrenari begira

Joan dira udako porrak eta etorri da euria derrepentean. Eta horrekin batera itzuli dira egunkarietara eta albistegietara urtetik urtera, ikasturte hasierarekin bat behin eta berriz errepikatzen diren kontuak, benetan aspergarriak suertatzen direnak. Itzuli da Ibarretxeren galdeketa ere eta badirudi politikariek gabe ez dagoela justiziarik. Ikusi behar orain Estrasburgon zer dioten.

Eguzkia eta txankletengatik bakarrik ez, uda gustuko dut, besteak beste, egunkaria patxadaz irakurtzeko aukera eskaintzen duelako, eguneroko presarik gabe. Eta han eta hemen topatzen dituzu sail berriak, freskagarriak eta arinak kasu askotan, eguneroko agendatik ihesi. Albiste gabeziak sormena bultzatzen du nonbait. Ez dago gaizki. Irakurlea harrapatzea da kontua.

Agian aukera sanoagoa izan daiteke denboraldi luze batez albisteen baraua egitea, burua *garbitzarren*. Atzerrira joanez gero errazagoa da deskonektatze hori, nahiz eta gaur egun gero eta zailagoa den, teknologia berrien erruz. Udan irakurri dudanez, Internetek 2040. urtearen bueltan akabatu du prentsa idatziarekin. Bien bitartean, eskerrak oraindik ere egunkaria esku artean hartzen duzuenoi.

> Vuelta. Ez dago ziklismoa lasai jarraitzerik telebistan. Zapatuan kalamidade ugari Anglirura bidean, txirrindulariak ukitu, bultzatu nahian. Eta guardia zibilak korrika haien atzetik, aldapan gora... Uff.

> Gertukoa? Gurasoek arazo larria izan dute etxetresna batekin. Fagorrera deika hasi eguen goizean eta astelehenera ezin direla konpontzera etorri. Gertuko zerbitzua, bezeroak zaintzea al da hori?

"Itzuli dira egunkarietara urtetik urtera errepikatzen diren kontuak"

debagoiendarrak kanpoan

Joxe Ramon Axpe eta Alazne Intza > Oñati

"Oso gogorra da jendea, tartean ume ugari, kalean lo eta eskean ikustea"

JOKIN BEREZIARTUA > OÑATI

Atzo hasi zuten Joxe Ramon Axpe (Oñati, 1974) eta Alazne Intzak (Oñati, 1974) Indiarrako itzulera bidaia. Egun batzuk Oñatin izan ostean lanera itzultzeko ordua da. Pune-n daude, autoz Mumbai hiru ordutara dagoen lau millioi eta erdi biztanle baino gehiago dituen hirian. Ezin da ahaztu Indian bakarrik Europa eta Afrika osoan baino biztanle gehiago dagoela. Bikotea lan kontuengatik joan da Indiara; hura beste mundu bat dela diote.

Urtarrilean erabaki zenuten Indiara joatea, Pune hirira, hain zuzen. Aldaketa ederra, ezta?

Ertortzeko erabakia hartzea ez zen erraza izan. Baina aldaketa ondo etorriko zitzaigula pentsatu genuen. Gainera, kultura berri bat ezagutzeko gura genuen.

Nolakoa da zuen egun normal bat han?

Goizetik arratsaldera arte lanean egoten gara. Hemen oso azkar iluntzen du, 19:00etarako ilun da. Iluntzean kirol apur bat egiten saiatzen gara, korrika egin, igeri... Kirolak ezean, lagunekin geratzen gara afaltzeko.

Aste bukaeratan hiritik irtean saiatzen gara, baina Indian distantziak oso handiak dira eta ez da batere samurra alde batetik bestera mugitzea. Zinera edo igerilekura joan eta hemengo zenbait txoko ezagutzen saiatzen gara.

Asko kostatu al zaizue India-ko bizimodura egokitzea?

Egokitzea ez zaigu larregi kostatu. Okerrena mugikortasunerako arazoak dira. Hirian mugitze-ko kilometro dezente egin behar



JOXE RAMON AXPE

Gure parajeen falta

Bikote oñatiarrak Urbia eta Arantzazu inguruko berdetasuna eta lasaitasuna botatzen dituzte.

dira; autoz, motoz edo rickshawan (pertsonek tiratuz dabiltzen ibilgailua). Trafikoa ikaragarria da, erabateko kaosa. Denetarik ibilgailuek gain, behiak saihestu behar dira, hemen sakratuak dira. Eta hori gutxi balitz, ezkerretik gidatzen dute, errepideak oso kaskarrak dira eta klaxona etengabe jotzen dute.

Janaria, bestalde, oso pikantea da. Astebukaeratan gure egoera berean dauden lagunekin elkartzen gara gure estiloko afari eta festa bat egiteko.

Indiatik zer aldatuko zenukete? Nola bizi dira indiarrak?

Aldatzeko hainbat gauza dago Indian. Besteak beste, indiar guztiek heziketa baterako eskubi-dea izatea, aberats eta pobreen arteko aldea hain handia ez iza-

tea, ingelesengandik jasotako burokrasia murriztea -edo zertarako paper ugari bete behar dira eta horrek denbora eskatzen du...

Familiak indar handia du hemen, baita erlijioak ere. Oso sinestunak dira, eta hinduismoa nagusi bada ere, musulmanak, katolikoak, budistak... ere daude.

Euskaldunok zertan gara ezberdinak indiarrarekin?

Hasteko, gu hiru milioi pertsona eta hizkuntza bakarra dugun herria gara. Indiak milioika biztanle ditu, eta 17 hizkuntza ofizial -guztira ehunka hizkuntza daude-. Klimagatik edo lanerako erritmo motelagoa daukate, baina negoziotetan oso onak dira. Bestalde, oso jende irekia da eta jakin min handia daukate beste kulturak ezagutzeko.

kale inkesta

Ibarretxeren herri galdeketa proposamena atzera bota du Konstituzionalak. Eta orain ?



Bidale Mugika
Langilea
Bergara



Itziar Usandizaga
Langilea
Bergara



Javier Gabilondo
Langilea
Bergara



Eugenio Zabala
Erretiratu
Bergara

Gertatu dena lapurreta bat izan da; Aurpegira egin diguten lapurreta. Madrilgo epaitegiek ez dute ezertarako balio. Epaileak politikariak dira han. Europako Konstituzionalera jotzea oso ondo iruditzen zait.

Bagenekien hori gertatu-ko zela. Aurrez ere esan ziztzaion Ibarretxeri. Puzgarria gehiegi puztu du eta jendea engainatu egin du. Europar hitza eskatzen ari da, orain, eta hemen, berriz, hitza kendu egiten du.

Lehendakariak proposatzen duena legezkoa iruditzen zait. Jendeari galdeketa, eta herritarren iritzia ezagutzea ondo dago. Orain, ikusiko dugu zer gertatzen den Europan. Baina, zaila ikusten dut ezer lortzea.

Oso gaizki iruditzen zait gertatzen ari dena. Epaileak zeharo politizatuta daude. Europako Konstituzionalera jotzea oso ondo dago. Ez dut uste asko lortuko duenik, baina, ondo dago geldiek ez geratzea.

zorroztailea



Markos Balentiaga

Danone-mutila

"Jose Maria Aznarren entrenatzaile pertsonalak, Bernardino Lombaok zera adierazi dio *Corriere della Sera* egunkari italiarrari: 'Aznar sasoi betean dago. Egunero joaten da gimnasiora eta bi orduz entrenatzen da. 2.000 flexio egiteko kapaz da. Atleta baten prestaketa programa jarraitzen du Aznarrek'".

El Diario Vasco > 2008-09-13



irakurlearen txokoa

943 25 05 05

goienkaria@goiena.com

BERGARA

> Kalteak eragin dituzte Irizar lorategian

Dagoeneko jai guztietan ohikoa den bezala, irakurle batek deitu digu Irizarreko lorategiko kupelak apurtu dituztela azaltzeko. Kirol denda batek lorontzi bezala erabiltzen ditu hauek eta jai-giroa dagoen gehienetan botata eta puskatuta agertzen dira.

BERGARA

> Ikerleku kalea txiza leku publikoa bihurtu ote da?

Ikerleku kaleko bizilagunak aspertuta eta nazkatuta daudela adierazi digute: jaiak heltzen direnean gerru usaina pairatu behar dute etxetik irtetzen diren bakoitzean.

ZUZENKETA

Udako Argazkien Lehiaketa

Joan den asteko alean, UDAKO ARGAZKIEN LEHIAKETARI eskainitako tartean, Josu Letek bidalitako argazki bat zetorren. Valle de Tenan, Prinioetan ateratako argazkia zen, baina ez 4.000 metroko altueran, han jartzen zuen moduan. Pirinioetan gainera ez dago 4.000 metroko altuera duen mendirik.

ustek uste

Nerea Menor

Iraileko kontuak

Kilo batzuk jaisten hasteko garaia omen da iraila. Hori esan didate behintzat gimnasioetan. "Jendeak osasuntsu egon nahi du eta irailen hasten dira plan berriekin". Iraila ere krisi garaia omen da: seme-alabentzako liburu eta koadernoak, matrikulak eta dirudienez gimnasioa ere bai.

Baina zapatuan, San Martin feria ospatu zen Bergaran: urteroko barazki handi horrek eta gazta mamitsuak. Taloak ere ez ziren falta, ezta sagardoa edo fruituak ere. Horrelakotan guztia ahaztu, eta herriko jaietan parte hartzeko besterik ez bada ere, alde batera uzten ditugu krisiak eta planak. Nik behintzat, poz askorekin jan nuen Idiazabalgo gazta eta bihotzez eskertu zidan aitxixak patxarana.

Gipuzkoako egunkari salduenak: "Aznarrek 2.000 flexio egiten ditu egunian"; ondoren, entrenatzaillak: "Datorren otsailian beteko ditu 56 urte baña dozena bat gutxiago emoten ditu".

Telebistan ikusitakuari erreparauta, Aznar gorputzez ez da gauza haundirik, baña, halakuak irakurritta, pentsau leike gorputzian daukan ingururik koipetsuena flekillo errebeldia eta bigotitua dittuala.

Jende korrentia oporretatik bueltan lanari tamaña hartu nahixan dabillen sasoi krisimin honetan, hara zerekin datorkun Aznar, urrezko jubilaua, ze barrixa ez da zabaldu atleta beraren konplizidadia barik.

"Hankak ariñak eta burua ariñago, dantzan hobeto daki artajorran baño" diño euskaldunon artian eza-gun askua dan koplazaharrak. Aznarrenaren moduko kaskariñen bat ete zeukan goguan (edota aurrez aurre) halako kritika-berba zolixak erabili zittuan bertsolari ezezagunak?

Aparteko gogorantzia barik be, irakurle aktualidadezaliak goguan izango dau juañ dan ekañian PPreñ kongresuan Aznarrek egin zittuan agerraldi bi harek. Bestela be kongresu arazotsu samarra izan zana, Aznar harroskotiak bere uesteko dandy-plantia mundu osuari erakusteko erabili zeban, lotsabako-lotsabako.

Baña kontua biribilduz, notiziaren akaberan zetorrenak be ez dauka alperrik galtzeko koipe-tantarik, ez horixe. Hara: zer dala eta hain zuzen be oraintxe Aznarren egoera atletikuaren gañeko interes hori, berez auzi hain partikularra izanda? Eta erantzuna: Frantziako justizia-ministruak espero daben umiaren aitta izan leikela zabaldu izana! Hau mundua!

Datorren Behobia-Donostian Ibarretxe lehendakarixari aurria hartu nahixan ikusiko ete dogu danone-supermutilla antxixkika?

"Pentsau leike daukan ingururik koipetsuena flekillo errebeldia eta bigotitua dittuala"

"Hankak ariñak eta burua ariñago, dantzan hobeto daki artajorran baño"

Goienkaria

Argiraraztailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Edu Mendibil Erredakzioa Mireia Bikuña, Arantzazu Ezkibel, Irati Agirreazaldagi, Maier Uranga Oinarritzko diseinua Golo Arana Diseinu arduraduna Alex Azkarate Maketazioa Imanol Soriano Publizitate arduraduna Mireia Larranaga Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazio arduraduna Agurtzane Gaintzarain

EGOITZA NAGUSIA
BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK
ARRASATE 20500 Otarora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABALETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: SS-0088/04 • ISSN: 1697 3542 • Tirada: 5.000 ale



ASTELEHENKO GOIENKARIAK ez du bere gain hartzen IRTIZIA orrialdean, edo kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Gipuzkoako
Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

Herriak

Arrasate > 10 Bergara > 11 Oñati > 12 Aretxabaleta > 13 Eskoriatza > 13
Antzuola > 14 Aramaio > 14 Elgeta > 14 Leintz Gatzaga > 14



> **ARRASATE**
Islamaren ekarpena ezagutzeko erakusketa zabaldu dute Kulturaten > 10



> **BERGARA**
San Pedro kaleko urbanizazio lanak hasiko dituzte irailaren 22an > 11



> **ELGETA**
Lambretta eta Vespa motorren hirugarren topaketa egingo dute domekan > 14



2006/2007 denboraldian erabili zen azkeneko Atxabalpe futbol zelaia. Bertan egin zen azkeneko ekitaldia sega erakusketa bat izan zen, 2007ko uztaillean. Orduetik asko hasi da belarra.

JOSETXO ARANTZABAL

ARRASATE > 2007KO EKAI NEAN ITXI ZITUEN ATEAK ATXABALPEK

Atxabalpe itxi zenetik urtebete pasa denean, etxeak jasotzeko zain oraindik

19 URTE ZABALIK

Urte horietan guztietan Mondra futbol taldearen etxea izan zen Atxabalpe zelaia

ETORKIZUNEAN

Egitamu Orokorrean etxebizitzak egitea jasotzen da. %50 tasatuak izango dira

ARRITXU BARRUSO > ARRASATE

Urtebete pasatxo da Arrasateko Atxabalpe futbol zelaia itxi zutela eta azken hilabete hauetan belarrak majo egin du gora. Futbol arratsalde politik eskaini zituen sasoi batean Arrasateko futbol zelaia nagusia izan zenak. Mondra futbol taldearen etxea izan zen 19 urtez. Arrasateko errugbi taldeak ere, Garagartzako zelaian jokatzeko zuen arren, Atxabalpeko aldagelak erabiltzen zituen. Nazioarteko zazpinako errugbi txapelketa ere urteroko hitzordua izan ohi zen Atxabalpen.

URTEBETE ITXITA

2006/2007 denboraldian itxi zituen bere ateak Garagartzako auzoko futbol zelaiak eta ekainean jolastu zen azkeneko jardunaldia. Harrezkero Mojategi-

ko kirol instalazio berrietan jolasten eta entrenatzen dute, bai Mondrak, eta baita errugbi taldeak ere.

Itxita daraman hilabete hauetan guztietan, baina, behin baino gehiagotan erabili izan dute Mondrako partiduak jokatzeke ez bazen ere. Garagartzako auzotarrek egin dute bertan partiduren bat edo beste, eta Auzolan programakoek ere erabili izan dituzte Atxabalpeko aldagelak.

SEGA ERAKUSTALDIA

Zelaian belarra gora zihola ere aprobetxatu zuten baten batzuek. Hain justu 2007ko uztaillean sega erakustaldi antolatuta zuten Atxabalpen Gesalibarko auzo batzordeak eta Almitza Sega Elkarteak. Ikuskizun polita izan zen hura; Euskadi mai-

lako punta-puntako segalariak fin jardun zuten-eta hilabete pasatxoan moztu barik zegoen Atxabalpeko belarra moztzen.

ETXEBIZITZAK EGINGO DITUZTE

Dena dela Atxabalperen etorkizuna zehaztuta eta erabakita dago dagoeneko. Izan ere, Arrasateko Udalaren Egitamu Orokorrean jasotzen da futbol zelaia dagoen lursailetan etxebizitzak egingo direla. Are gehiago, horietatik %50 tasatuak izango dira. Errugbi zelaiarekin ere gauza bera egitea aurreikusten dute.

Dena dela, oraindik ezin zaio egutegirik finkatu proiektu horiei. Udaletik azaldu dute asmoek bere horretan jarraitzen duten arren, oraindik ez dutela proiektu hori esku artean hartu. "Proiektuak bere

horretan jarraitzen du, eta gure asmoa da zonalde horretan etxebizitzak egitea. Baina, etxebizitzak kontuetan beste lan batzuekin buru-belarri gabiltza orain. Esaterako, Zerrajera atzealdeko etxebizitzekin. Atxabalperi ere iritsiko zaio bere momentua. Egitamu Orokorrean gauza eta proiektu asko kontenplatu dira, baina, ezin dira guztiak batera martxan ipini. Baina, esan bezala, proiektuak eta asmoek bere horretan jarraitzen dute" azaldu du Arrasateko alkate Ino Galparsorok.

Kontuak kontu, belarrak gora egiten jarraitzen du. Etxebizitzak egiten hasi aurretik, beste sega erakustaldi bat egiteko aprobetxatzea ez legoke gaizki. Azkeneko belarra motz xamar zegoela esan zuten partaideek-eta.

ERAKUSKETA > 'ISLAMA, GUZTION ONDAREA' KULTURATEN

Islamaren ekarpena ezagutzera emateko erakusketa zabaldu dute

Egubakoitzean zabaldu zen, eta hilaren 28ra arte bisitatu ahal da, arratsaldean. Bisita gidatua eskatzeko aukera dago; baina aurrez deitu behar da

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE
Islamiar Kultura Fundazioak eta Euskal Arabiar eta Libiar Kultura Etxeak antolatuta, eta Elkarheitzaren taldearen laguntzaz, "Islam, guztion ondarea" izeneko erakusketa antolatu dute. Kulturaten dago ikusgai, irailaren 28ra arte.

BIZIKIDETZA BULTZATUZ
Proiektu honen helburua da islamaren ekarpena ezagutarazi eta beste kulturekiko bizikidetzat hartzea. Hau da, islamaren inguruko informazioa herritarrei erraz batean azaltzea da asmoa.



Islam bere osotasunean ezagutzeko aukera ematen du erakusketak.

ELKARHEZITZEN

Hau guztia, noski, modu erakarri batean azalduta dago. Besteak beste, mundu islamiarra laburtzen duen argibide-etaulak,

material grafiko anitza, produktu gastronomikoak, eskulanak, lore eta fruituak daude ikusgai. Erakusketa, gainera, musika ara-

biarrarekin girotua dago. Mundu islamiarrera hurbiltze bat besterik ez da, erlijio bitxi hau ezagutzeko aukera ematen duena.

GURE IBARREAN, BIGARRENGOZ
Ez da erakusketa interesgarri hau gure ibarrera etortzen den lehen aldia. Maiatzean Eskoriatzan ikusi ahal zen, eta ikusmin handia piztu zuen. Elkarheitzaren taldeak erakusketara gerturatze-ko deia luzatu nahi izan du.

BISITA GIDATUAK
Gaur abiatu dira *Islam, gure ondarea* erakusketa azalduko duten bisita gidatuak. Bisitok printzipioz, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzenduta daude. Gaurko goiza, adibidez, beteta dago Lehen Hezkuntzako ikasleentzat.

Hala ere, bisita gidatuaren zerbitzua edonork eska dezake. Bisita gidatuek, mundu islamiarra era sakonago batean ezagutzeko aukera ematen dute, gaian aditua den pertsona batek egiten ditu. Bisita gidatuarentzat talde bat osatu behar da, eta ezinbestekoa da aurrez abisatzea. Hona-ko telefono hauetara deitu beharra dago: 943 77 17 38 eta 688 61 89 98.

UDAL AZOKA > BIRMOLDAKETARAKO PLANA

Udal azoka nola berreskuratu aztertuko du Ikei enpresak

28.000 euro gastatuko dituzte zer egin daitekeen aztertzeko, eta Ikei enpresak hiru hilabete ditu erantzuna emateko

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE
Geroz eta saltoki eta jende gutxiago ikusten da azkenaldian Arrasateko udal azokan. Gainbehera

nabarmen hau ikusteko datu bat besterik ez: egun zortzi dira udal azokan dauden postu finko itxiak, eta duela hogeita urte 21 ziren. Egoera triste honi buelta emateko, udalak pasa den astean azoka nola berreskuratu daitekeen aztertzeko ikerketa lana abiarazi zuen. Udalak Ikei ikerketa enpresari eman dio arazo honi irtenbidea aurkitzeko ardura.

Udalak bi irizpideren arabera eskatu dio Ikei enpresari azterketa egiteko: azokaren instalazio-

en egoera nolakoa den zehaztu eta azokaren kudeaketa aurrera nola eraman daitekeen definitu.

IRTENBIDE POSIBLEAK ZEHAZTU
Batetik, gaur egungo merkatuaren instalazioak nolako egoeran dauden zehaztu behar dute Ikei-koek; eta beraz, obra batzuk beharko balira zein lan diren zehaztu.

Bestetik, udal azokan dauden saltokiak zein motatakoak diren ikusiko dute ikertzaileek. Beste zerbitzu baten beharra balego zein saltoki mota izango litzatekeen zehaztu beharko lukete.

2010EKO ABENDUA, MUGARRI
Gainbeherak kezkatzen badu ere, beste arrazoi bat ere badago udalak azoka suspertzeko irtenbideak aurkitu izana azaltzeko. Izan ere, udal azokan saltoki finkoa eta itxia duten zortzi merkatariei 2010eko abenduan amaitzen zaie saltokia izateko baimenaren epea. Merkataria hauek azoka utzi ez dezaten ekiditeko neurria ere izan da birmoldaketarako plana Ikei enpresari egokitu izana. Udalak 28.000 euro baino gehiago ordainduko dio Ikeieri.



JOSETXO ARANTZABAL

Amaitu dira Erguineko jaiak

Pasa den aste bukaeran jaietan izan dira Uribarri-Erguin auzoan. Egubakoitzean hasi eta atzo amaitu zituzten eta auzotarrek izan dute zer egin hiru egunotan. Jaiak egubakoitzean hasi ziren, iluntze aldera. 19:30ak aldera hasi zen bolo-boloa eta gaztetxoak -eta ez hain gaztetxoak- jo eta ke aritu ziren ahalik eta gozoki eta litxarrerri gehien lortzeko. Ordu berean buruhandiak ere izan ziren. Gauean, ordea, jende asko gerturatu ez bazen ere, musika onaz gozatzeko aukera izan zen. Arrasateko Ozen eta Aretxabaletako Scam taldeak izan ziren Usaetxe plazako agertoki gainean.

Zapatuan, berriz, egun osoan zehar izan zen zer egin eta zer ikusi. Txikienek ia egun osoa izan zuten puzgarri eta haur parkean nekatu arte jolasteko. Gaueko plana, nagusiei zuzendua. 23:00etatik aurrera musika izan zen protagonista, Arantza eta Pantxoren erromeriarekin.

Atzo eguerdian bertsolariak eta herri kirolak izan ziren Arimazubín. Ostean herri txikiteoa egin zuten, Bilboko gaiteroek girotua. Arratsaldean, aldiz, umeen jantzien desfilea izan zen Usaetxen. Jaiak merezitako amaiera izan zuten: Olandixotik jaurtitako su artifizialak.





Marixutarako eskaintza zabala arropa eta osagarrietan.

Bañez doktorea 1 ARRASATE
Tel.: 943 79 63 85

HIRIGINTZA > ERDIGUNEN KALEAK URBANIZATZEN

Irailaren 22an hasiko dira San Pedro kaleko urbanizazio lanak egiten

Artekalen eta Goenkalen egin duten moduan, San Pedro kalean ere galtzadarriak jarriko dituzte; lanek hiru hilabete iraungo dute

OIHANA ELORTZA > OÑATI

Datorren astelehenean, irailak 22, hasiko dituzte San Pedro kalea urbanizatzeko lanak. Artekalen eta Goenkalen egin duten moduan, galtzadarriak ere jarriko dituzte San Pedro kalean.

HIRU HILABETE

Agurne Barruso alkateak aurreratu du obrek hiru hilabete iraungo dutela eta Leturia harategian dagoen aldetik hasiko dituztela lanak. "Joan den astean bilera egin genuen San Pedro kaleko

bizilagunekin eta dendariekin, lanen berri emateko eta euren galderak erantzuteko", dio alkateak.

San Pedro kaleko lanak Egaralur eta LSG Elektrizitatea enpresek egingo dute elkarlanean. Egaralurreko Kepa Lasa apa-jadorearen esanetan, datorren astean udal ordezkariekin dute bilera, "zailtasun nagusiak zeintzuk diren ikusteko. Akometidak ikusi behar ditugu eta obrak irauten duten bitartean behin behineko zerbitzuak nola jarri erabaki". Agurne Barruso alka-

teak aurreratu du Artekalen baino material gehiago sartuko dutela galtzadarrien azpian, "Artekaleko sendoera bikoitza izango du San Pedroko lur zoruak, pisua hobeto jasateko".

AURREKONTUA

San Pedro kaleko lur azpiko azpiegitura, akometida, berritu eta eguneratuko dute. Galtzadarria ere jarriko dute oinezkoendako eta ibilgailuendako. Lan horiek 644.785 euroko aurrekontua dute.



Kalearen alde honetatik hasiko dituzte San Pedro kaleko urbanizazio lanak.

JASONE ZABALA



JASONE ZABALA

Eizagirre anaien agurra

Pasa den irailaren 11n, 15 urtetan zehar San Pedro parrokian eta Antzuolako parrokian abade izan diren Rafael eta Fidel Eizagirre anai zarauztarrei agur afari-merienda egin zieten Pertxa elkarteak, 15 urtetan zehar katekista lanetan jardun duten emakumeek; guztira 30 bat katekista egon ziren agurrean. Datorren zapatuan egingo diete agur meza Eizagirre anaiei. 1993an etorri ziren abade moduan Bergarara, baina lau urte pasa ondoren Rafael Antzuolako parrokiara joan zen gaur arte. Urritik aurrera, Rafa Eizagirre Getariako parroko berria izango da eta Fidel anaia, Zarauzkoa..

> ELIZA

Juan Mari Uriarte gotzaina hurrengo zapatuan Bergaran

Juan Mari Uriarte gotzaina zapatuan, hilak 20, Bergaran izango da Fidel Eizagirre apaizari agurra emateko, San Pedro parrokian, 20:00etan. Haren lekua Iñigo Mitxelenak eta Juan Kruz Mendizabalek beteko dute, *in solidum*, hau da biak hiru parrokiatan izango dira lanean: Santa Marinan, San Pedron eta Antzuolan. Zapatuan bertan Rafael Eizagirre-ri agurra egingo diote Antzuolan, 18:30ean. Uriarte gotzainan han izango da baita.

> DIRULAGUNTZAK

Errotuluak euskaraz ipintzeko Udalaren dirulaguntzak

Udalak, 2008an establezimendu komertzialetako errotuluak, irudi korporatiboa eta webguneak euskalduntzeko dirulaguntzak eskainiko ditu.

Dirulaguntza horiek urte bukaera arte mantenduko dira. Urtarriletik gaur egunera arte zabaldu diren establezimenduetako jabeak edota lehendik negozioa martxan izanda ere elementu horietako bat aldatu dutelako eta dirulaguntza eskatu nahi duenak, jar daitezela harremanetan Udaleko Euskara Zerbitzuarekin.

UDALA > EZ OHIKO OSOKO BILKURA

Larrialdietako plana eguneratu eta onartu du Udalak

Uholde, sute edo istripu larriei aurre egiteko herriak zer baliabide dituen eta egoera horietan zer egin jasotzen du planak

O.E. > BERGARA

Orain arteko larrialdi plana eguneratu egin du Udalak. "Aurreko planak 10 urte zituen eta denbora horretan herria aldatu egin denez, eguneratu egin dugu", azaldu du Agurne Barrusok.

Larrialdi plan horrek jasotzen du uholde, sute edo istripu larri bat dagoenean, adibidez, nola jokatu. "Batetik jasotzen du horrelako egoera bati aurre egiteko Udalak zer baliabide, dituen langile eta material aldetik. Baita herrian dauden baliabideak ere. Adibidez, hormigoia egiteko aparailua behar izanez gero, badakigu nortzuk duten eta nora deitu dezakegun hori lortzeko", dio Alfonso Alonso udaltzainburuak. "Bestalde, horrelako egoera baten aurrean sortzen den "krisiaren mahaia" nortzuk osatzen duten ere jasota dago. Alkatea, udaltzaina, Jaurlaritzako

teknikari bat eta hirigintzako edo dagokion arloko teknikaria egongo dira. Ardura nagusia alkateak du", jarraitu du Alonsok.

BERRIKUNTZA

Plan honek gasa mozteko puntuak herriko zein tokitan dauden ere jasotzen ditu; aurreko planean ez ziren agertzen puntu horiek.

Herriko larrialdi plan berri hori joan den asteleheneko ez ohiko osoko bilkuran onartu zuen udalbatzak. EAJ abstenitu egin zen, "aldaketak ez dizkigulako inork azaldu", Juanjo Arrietak esan zuen moduan. Beste alderdiek alde bozkatu zuten.



Uholde, sute edo istripuen aurrean nola jokatu erakusten du planak.

GOIENKARIA



Idoia Lazpita udaltzainburu berria Bidebarrieta kaleko egoitzako bulegoan.

MIREIA BIKUÑA

UDALA > ZERBITZUAK

Idoia Lazpita arrasatearra da udaltzain-buru berria

Uztaileko osoko bilkurak bere izendapena onartu ondoren, irailaren 1ean hasi zen lanean

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Oñatiko udaltzain taldeak arduradun berria du hil hasieratik. Hain zuzen ere, Idoia Lazpita arrasatearra hartuko du urtean Antonio Vazquezek betetako lekua. "Irailan zehar, jaiak direla-eta, Jose Antoniok eta biok egingo ditugu udaltzain-buruaren lanak", esan digu Lazpitak. Arrasateko Udalean 12 urte egin ditu udaltzain lanak: 7 urte udaltzain moduan eta beste bost urte udaltzain lehena moduan. Baina

herria aldatu eta Oñatirako bidea hartzea erabaki zuen. Bi aste daramatza lanean eta dagoeneko antzeman ditu bi herrien arteko ezberdintasunak. "Oraindik nahiko galduta nabil, egia esan; baina, zirkulazio aldetik oso ezberdinak dira Arrasate eta Oñati. Hori behintzat igarri dut", esan digu udaltzain-buru berriak. "Dena den, San Migel jaiak direla-eta lan dezente izango dugu datozen asteetan eta azkar ikasi beharko dut".

EGOITZA BERRIA

Udaltzainburu berriaren etorrerak bat egin du udaltzaingoaren egoitza berriaren inugurazioarekin. Gaur bertan hasiko dira lanean Ertzaintzaren komisaria izan zeneko eraikinean; hau da, Bidebarrieta kaleko 1 zenbakian. "Zortzi udaltzain eta ni neu egongo gara egoitza berrian", dio Lazpitak, "eta beste bi udaltzain udalean geratuko dira laguntza-talde modura".

Udaltzainen bulegoa zabalik egongo da astelehenetik egubakoitzera arte, 07:00etatik 22:00etara, eta zapatuetan, 07:00etatik 14:30era arte.

DEIALDIA > 'BATETIK BESTERA'

Argazki lehiaketa deitu du gaztelekuak

Lehiaketa 12-18 urte artekoendako da, eta parte-hartzaile bakoitzak, gehienez hiru argazki aurkez ditzake

kia egin zeneko data zehaztu beharko dute. Guzti hori ezizena daraman kartazal batean sartu, eta barruan norbere datuak jarrita, gaztelekuko Gazte Informazio Puntuaren entrega beharko dituzte, hilaren 26a baino lehen.

ERAKUSKETA EGINGO DUTE

Epea bukatu ondoren, argazki onenak gaztelekuko kuboan egingo duten erakusketa jarriko dituzte, eta erakusketa ikustera joaten direnek erabakiko dituzte lehiaketako irabazleak. Hau da, ikusleek gustukoaren bi argazkien aldeko botoak emango dituzte. Ondoren, boto gehien jasotako bi argazkien egileei sariak banatuko zaizkie. Hain justu ere, 150 euro irabazlearendako, eta 100 euro bigarrenarendako.

M.B. > OÑATI

Batetik bestera izeneko argazki lehiaketa deitu dute gaztelekuko arduradunek. Hain justu ere, 12-18 urte arteko nerabeendako lehiaketa deitu dute.

Lehiaketan parte hartu gura dutenek, gehienez hiru argazki aurkez ditzakete. Argazkiak paperean edo CD euskarrian aurkez daitezke. Gainera, argazki bakoitza azalpenarekin entregatu behar dute, eta argaz-

> ERRETIRATUAK

Pake Leku elkartearen zabalik dute urrian hasiko dituzten ikastaroetarako izenemate epea

Pake Leku erretiratuen elkartearen lanean hasi da ikasturte berriari begira, eta urrian hasiko dituzten hainbat ikastaroetarako izenemate epea zabaldu dute. Hain justu ere, hilaren 21era arte eman dezakete izenak interesatuek. Horretarako, iragarki taulan dagoen orria bete eta iradokizunen postontzira bota beharko dute. Aretot dantzak, puntu ikastaroa, orratz lanak, bitxigintza eta tai-chi ikastaroak dira erretiratuen eskura jarri dituztenak. Informazio gehiago gura dutenek erretiratuen elkartera jo dezakete.

> HITZALDIA

Txema Auzmendi jesuita eta kazetariak hitzaldia egingo du eguaztenean, kultura etxean

Hilaren 24a presoen zaindaria Mesedeetako Ama Birjinaren eguna dela- eta, parrokiako Espetxe Pastoralak antolatuta hitzaldia egingo du Txema Auzmendi jesuita eta kazetariak. Hain justu ere, kultura etxean egingo du eguaztenean, 18:30ean hasita. *Pastoralgintza espetxeetan* da hitzaldiaren izenburua.

Bestalde, Elikadura eta Dietetika Aplikatuaren titulatu eta sukaldaritzaren naturalean aditu den Jesus Romerok hitzaldia egingo du sukaldaritzaren osasuntsuaren inguruan, hilaren 25ean.

Lehen saria jaso du Jokin Astigarragak

Pilotarien Biltzarrak antolatutako argazki lehiaketako lehen saria eskuratu du Jokin Astigarraga oñatiarrak *Barru* izeneko argazkiarekin. Ekainaren 22an egin zuen Pilotarien Biltzarrak urteko batzar nagusia eta han jaso zituzten oñatiarrak 500 euro eta garaikurra sari modura.

Bigarren lehiaketa irabazi du denbora gutxian Astigarragak, aurretik, uztailean, Antxintxiketan kirol elkarteak Corpus egunaren inguruan antolatutako lehiaketako bigarren saria jaso zuen-eta.



JOKIN ASTIGARRAGA

ARETXABALETA > TURISMOA

Nafarroaren gaineko erakusketa zabala ikus daiteke irailaren 30era arte Arkupen

Hango eskaintza turistiko eta gastronomiko zabala ezagutzera eman da Patxi Uriz argazkilariaren irudien bidez; baita ikus-entzunezko eta triptikoen bitartez ere



Nafarroa bisitatu nahi duenak Arkupeko erakusketa bisita dezake aurretik.

MIRARI ALTUBE

MIRIAN BITERI > ARETXABALETA

Nafarroa gustuko duena Arkupe kultura etxera joan daiteke egunotan, *Navarra a la Carta* izeneko erakusketa dago eta egunotan han ikusgai. Goizez eta arratsaldez dago zabalik, 11:00etatik 13:00ak arte eta 18:00etatik 20:00etara bitartean. Hil amaiera arte, irailaren 30era arte, egongo da ikusteko aukera.

Erakusketa izen bereko liburuan oinarrituta dago. Patxi Uriz argazkilari iruindarrak, Nafarroako patrimonio naturala, historia, kulturala eta gastronomikoa azaltzen ditu irudi ederren bidez.

Azken horren harira, erakusketan hain ezagunak diren bertako produktuak ezagutzera ematen dira, hala nola, Erronkariko gazta, Lodosako piper gorriak

edo Nafarroako zainzuriak, olioak edo ardoak. Hainbat errezeta ere eskaintzen dira. Arkupera joaten direnek, gainera, eskaintza turistikoa eta gastronomikoaren gaine-

ko ikus-entzunezkoa ikusiko dute eta horren gaineko triptikoa ere eskuratu ahal izango dute. Aukera ederra Nafarroa gehiago ezagutu gura dutenentzako.

> ARETXABALETA
Ipuin kontalariak eta ikus-entzunezkoa daude egunean

Arkupe kultura etxearen egitarauaren barruan, ekimen bi daude egunean, irailak 18an. Ikus-entzunezkoan Zelanda Berriaz jardungo dute. Jose Ramon Agirre arduratuko da horren gaineko irudiak eta azalpenak emateaz. Hitzordua 19:30ean jarrita dago.

Ipuin kontalaria, berriz, Arkupeko liburutegian izango da, 18:00etan. Lander Juaristik eta Leire Iruinek etxe-ko txikienak liluratuko dituzte ipuin batekin.

> ARETXABALETA

Ibilgailuendako pasabideak ordaindu daitezke dagoeneko

Udalak ibilgailuek oinezkoen bideetatik garajeetan eta bide publikoan aparkalekua gordetzeagatik aurtengo errolda onartu du eta ordaintzeko epea ireki du. Errolda fondoen kontu hartzailetza bulegoetan dago ikusgai. Erreklamazioak udaletxean aurkez daitezke. Azaroaren erdialdera arte ordaindu daitezke. Helbideratutako ordainagiriak izan ezik, beste guztiak udaletxean ordaindu behar dira.

ESKORIATZA > AISIALDIA

Herriko merkatariek saiheski erreak prestatuko dituzte zapatuan, herriko plazan

Trikitilariek giroa alaituko dute, eskoriatzarrek okela pintxo eta sagardoa edo ardoa hartzen duten bitartean



Azken urteotan azaroan bildu izan dira merkatariek gala afaria egiteko.

GOIENKARIA

M.B. > ESKORIATZA

Datorren zapatuan, hilak 20, saiheski erreak prestatuko dituzte herriko merkatariek. Antolatzaileek azaldu dute eskoriatzarren artean ehun kilotik gora banatzeko asmoa dutela; 600 pintxo inguru, hain zuzen.

Ekimen gastronomikoa 19:30ean hasiko da herriko plazan. Euro baten truke okela pintxo bat eta ardo edo sagardoa hartzeko aukera izango da. Dastatzeak irauten duen bitartean, trikitien soinu alaiak entzungo dira. "Hitzordu horren bidez herria girotu gura dugu", aipatu dute antolatzaileek.

GALA-AFARIA

Jarraian, eta urtero egiten duten moduan, gala-afaria egingo dute merkatariek. Horretan 20 eta 25

lagun artean espero dituz. "Festa-jantziekin joango gara udazkenari behar bezala ongi etorria emateko", diote antolatzaileek. Orain arte gala-afaria baino ez

dute egin urtero, azaro aldera. Aurtun, baina, ekitaldiaren data aurreratzeaz gain, herri osoari zabaltzea erabaki dute, okela dastatzearen bidez.

ESKORIATZA > KULTURA

Helduendako pintura ikastaroa izango da urritik aurrera, zapatu eguerdietan

Ikastaroaren prezioa 95 eurokoa da eta interesa dutenek kultura etxean eman dezakete izena irailaren 30era arte

M.B. > ESKORIATZA

Eskoriatzako Udalak helduendako pintura ikastaroa antolatu du aurtun ere. Kultura teknikari Arantxa Untzuetak azaldu du eskolak urrian hasiko direla eta zapatuetan izango direla, 14:30etik 17:30era. Ekainera arte luzatuko direla ere dio.

Irailaren 30era arte dago ize-nak emateko aukera. Interesa duena kultura etxera baino ez da joan behar. Urte osoko ikastarok 95 euro balio du eta ordainketa izena emateko epea amaitu ondoren egingo da.

HAMABI PERTSONAKO TALDEA

Taldea, gutxienez, hamabi pertsonen osatuta egon behar dela eta eskolak Manu Gomez arrasatearrak emango dituela adierazi du

Untzuetak. Horrekin batera, eskolatan olio teknika jorratuko dutela dio, norberak bere erritmorik.

Kultura teknikariaren esanetan, jendeak hala eskatuta aukeratu dute esandako ordutegia: "Asteazkenean jendea oso lanpetuta dabil. Zapatuan bazkaldu ostetik zerbait egiten hasten garen arteko tartetxo horretan momentu egokia dela iruditzen zaie pintura zaleei". Gogora ekarri du, horren harira, urteak daramatzatela ordutegi horrekin.



Hirusta
Zateketa

Ilargi plaza 4
943 79 06 57
ARETXABALETA



Domekan, kontzentrazioa egingo dute herriko plazan parte hartzaile guztiak 09:00etatik 12:00etara.

GOIENKARIA

TOPAKETA > LAMBRETTA ETA VESPA MOTORREN TOPAKETA

Domekan motor hotsa izango da nagusi Elgetan

Antolatzaileek ehun bat motor batzeko itxaropena dute hirugarren edizio honetan

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Antolatzaileek guztia prest daukate domekan, hilaren 21ean, herrian egingo den Lambretta eta Vespa motorren 3. topaketarako. Fermin Iribar dabil, beste batzuekin batera Elgetan urteroko hitzordua bilakatu den topaketa prestatzen eta bere itxaropena da aurten herriko plazan ehun motor batzea iristea. "Iazko topaketan Vespa eta Lambretta markako 90 bat motor elkartu genituen. Ea aurten ehun elkartzerira iristen garen", adierazi digu.

EGITARAU PREST

Domekako egitaraua prest daukate antolatzaileek. 09:00etan hasiko dira Vespa eta Lambretta motorrak herriko plazan. Bertan egongo dira ikusgai hiru orduz, 12:00ak arte. Modelo askotariko motorrak izango dituzte ikusgai bertara hurbiltzen direnak. Gehienak benetako bilduma piezak, euren jabeek altxorak bailitzan moduan zaintzen dituztenak. Kontzentrazioak irauten duen denboran gainera, tripa betetzeko aukera egongo da Ozkarbi elkartearen. Salda eta txo-

rizoa ipiniko dituzte hamarretakoa egiteko. Kontzentrazioa amaituta, 40 kilometroko ibilbidea egingo dute parte-hartzaile guztiek. Elgetatik Elorriorako bidea hartuko dute. Miñota, Berriz, Abadiño eta Atxondotik igaro ostean Elorriora itzuliko dira. Kanpanzarretik, azkenik, Elgetarako bidea egingo dute.

BAZKARIRAKO IZENEMATEAK

Zabalik dago domekan 14:30ean Iñaki jatetxean egingo den bazkarian izena emateko epea. Hilaren 19a, barikua, da azken eguna. Interesa dutenek Iñaki jatetxera bertara jo dezakete edo Fermin Iribarri deitu behar diote 669 107 907 telefonora.

ARAMAIO > KIROLAK

Kurtzeta-Gain Tiro Elkarteko kideek hilaren 27an egingo du denboraldiko azken tirada

Tirada egin ostean batzar nagusia eta afaria egingo dute Uribarriko elkartearen. Izena emateko epea zabalik dago 23ra arte

tuko da. Bertan parte hartzeko junior mailakoek, beteranok eta emakumeek hiru euro ordaindu beharko dituzte eta gainontzekoek, berriz, hamar euro. 25 plateretara jokatu dute lehiaketa. Erregularitateko seriendako, bestetik, lehenengo 15 plateren emaitzak hartuko dira kontuan.

Denboraldiari behar bezalako amaiera emateko, gero, afaria egingo dute Uribarriko elkartearen. 19:30ean urteko batzar nagusia egingo dute bazkideek eta ondoren afaria. Afaltzera joan nahi duenak izena eman beharko du irailaren 23a baino lehen. Mikel Uribarrenekin jarri beharko da kontaktuan.

ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO

Kurtzeta-Gain Tiro Elkarteko kideek aurtengo denboraldiari amaiera emango diote irailaren 27an, zapatua, Kurtzeta-Gainen bertan, 16:00etan hasiko dute denboraldiko azken tirada hau, pull batekin, eta 18:00etan amai-

SARIAK

Lehenengo hamar postuek saria lortuko dute. Urdaiazpiko bana jasoko dute lehenengo hirurek; laugarrenak solomoa lortuko du eta bosgarrenak gazta. Gai-nontzekoek, txorizoa eta ardoa jasoko dute sari gisa.

KURTZETA-GAIN SARIA

Hilaren 6an Kurtzeta-Gain saria jokatu zuten. Enrique Ullibarri-rana eta Aitor Abarrategui aramaiorrek bigarren eta hirugarren postua lortu zuten, hurrenez hurren. 71 tiratzaile izan ziren eta horietatik 14 aramaiorrak.

ANTZUOLA > KIROL AZPIEGITURAK

Eztalako kantina berria martxan ipini zuten zapatuan


IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA

Zapatuan jokatu zuen futbol talde nagusiak denboraldiko lehen partidua. Taldean ez ezik beste nobedaderik ere ikusi zen Eztalan. Kantina berria ipini dute eta zapatuan hasi ziren lanean. Orain arte partidua bakoitzean ipintzen zuten txosna. Berria, Beheko Auzoko autobus geltokiko txabolatxoak aprobetxatuz egin dute.

Kantina etxean partidua jokatzeko dituzten zabalduko dute eta elkarteari inguruan urtetan dabilzan bi emakume arduratuko dira tabernaz.

Elkarteko presidentek esan digunez, asmoa dago edariez gain, noizean behin pintxoak ipintzeko.

Tabernatik ateratzen duten dirua elkarteari gastuei aurre egiteko izango da.



Beheko auzoko autobus geltokiko txabolarekin egin dute kantina.

J. ARANZABAL

LEINTZ GATZAGA > ARGINDARRA

Transformadore berria jarrita dago

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Opor sasoiari jarri gura zuten transformadore berria Gatzagan eta halaxe izan da. Zaharren alboan dago, Dorleta santutegira bidean dagoen aparkalekuan. Hala ere, oraindik ez dute martxan jarri eta transformadore zaharretik jasotzen dute argindarra herritarrek. Aldaketa egiten dabilzan enpresako langileek ez diote zehaztu Udalarari zein egunetan egingo duten aldaketa. Egun

horretan argindar barik egongo dira herrian, baina aurrez iragarriko dute, inork ez dezan kalterik izan.

Gatzagan Udalak banatzen du argindarra Leintzargi enpresaren bitartez. Horregatik transformadore zaharra aldatzera behartuta dago, eta diruz handia izan arren aurrera egitea erabaki dute. 2008ko aurrekontutik 122.000 euro gorde dituzte aurrekontuaren ia %30- lanak egiteko.

Iturrieta Sagardotegia

Zabalik ostegunetik domekara



Astelehenetik asteazkenera, enkarguz bakarrik zerbitzatuko da

Bertako sagardoa
Hamarretakoak (astebukaeretan)
Plater konbinatuak
Sagardotegiko menua
Menu bereziak

ITURRIETA BASERRIA - ARAMAIO (ARABA) - TEL.: 945 445 365 - 685721593

Kirola



> FUTBOLA
Mondrak irabazi eta Aloñak eta UDAk berdindu liga hasieran **> 16**



> ZIKLISMOA
Mikel Elortzak irabazi zuen 49. San Migel saria **> 20**



> ELKARRIZKETA
Aspeko kirol zuzendari Jokin Etxanizekin egin dugu berba **> 21**



Zuhaitz Ezpeleta arrasatera (133), Just Sociats (124) katalandarrarekin batera Peña-Mea tontorrera igotzen. Lehenengo eta bigarren tokian heldu ziren helmugara.

GASPAR MEDINA

MENDIKO LASTERKETAK > ESPAINIAKO KOPA

Asturiaseko proba irabazita, Espainiako Kopa Ezpeletarendako

LEHENA

Quebrapates Peña-Mea proba irabazi zuen atzo Arrasateko korrikalariak

MARIO LLORENS

Kopako lider Mario Llorensek huts egin zuen lasterketako igoyerako metroetan

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

Denboraldi borobilarekin bukatu zuen atzo Zuhaitz Ezpeleta arrasatearrak. Mendiko lasterketen Espainiako Koparako puntuagarria zen azken proba irabazi zuen Lavianan (Asturias). Lehen postuari esker, Espainiako Kopa eron zuen arrasatearrak.

AÑORGA-ARRASATE

Uste baino azkarrago jarri zen lasterketa Ezpeletaren alde. Goranzko lehen kilometroetan huts egin zuen Espainiako Kopako saillkapeneko lider Mario Llorensek. "Llorens, Just Sociats eta hirurok egin dugu aurrera hasieratik. Nik banekien Mario Llorens zaindu behar nuela. Hasieratik ikusi dut lehia gogorra izango genuela hirurok; baina, gutxien espero genuenean atzean geratu da Llorens. Ezustekoa hartu dugu

Llorens oso ondo igotzen da-eta", esan zigun Zuhaitz Ezpeletak sariak jaso ondoren.

Metro batzuetako abantaila hartuta, haiekin bat egin zuen Euskadiko selekzioko Joseba Olabarriak. "Josebak gurekin bat egin duenean lasaitu egin naiz, batez ere, Llorens nahiko atzean zegoela esan didanean".

Olabarria, Sociats eta Ezpeleta batera heldu ziren Peña-Mea tontorrera, eta beheerako bidea hartu zutenean atzean geratu zen Joseba Olabarria.

BIEN ARTEKO LEHIA

Jaitsieran disfrutatzeko aukera izan zuela esan digu korrikalari arrasatearrak: "Jeneralean ez da hala izaten, baina gaur disfrutatzeko aukera izan dut. Proba oso gogorra da, eta hemengo parajak Euskal Herrikoen antza izuga-

rria dute". Jaitsieran lehia estua izan zuten Zuhaitz Ezpeletak eta Just Sociatsek. "Aldapa behera ondo moldatzen naiz. Banekien, kopa eskuetan nuela, eta ez zitzaidan inporta lasterketa ez irabaztea. Baina, katalandarrak ere huts egin du azken kilometroetan, eta lehen tokian sartu naiz helmugan", esan zigun.

"DENBORALDIA LUZEA EGIN ZAIT"

Oso pozik eta atsedean hartzeko gogoarekin zegoen Ezpeleta bukeran. "Denboraldia borobila izan da. Lehen aldia zen Espainiako Kopan parte hartzen nuela, eta jokaturako probetatik hiru irabazi ditut. Oso pozik nago, baina atsedean hartzeko gogoarekin. Denboraldia nahiko luzea egin zait".

"Hasierako metroetan Mario Llorensek huts egin duenean, banekien nire esku zegoela proba eta kopa irabaztea"

Zuhaitz Ezpeleta > Irabazlea

"Lasterketa oso ondo joan da, guztira 133 parte-hartzailek hartu dute irteera eta hiruk utzi dute lasterketa"

Alfredo Gartzia > Antolatzailea

PREFERENTE MAILA > PUNTU BANAKETA AZKOAGAINEN

Bigarren zatian egin zituen lehia berdintzeko golak Aloñak

ALOÑA MENDI

2-2

IDIAZABAL

Aloña Mendi > Oier, Elgarresta, Jon, Roberto, Mikel, Unai, Asier, Iñigo, Xabier, Iker eta Ioritz.

Idiazabal > Mujika, Cristian, Argiñano, Urretabizkaia, Urreta, Zabaltza, Didaka, Arri, Urtzi, Mendia eta Tena.

Epailea > Merino jaunak zuzendu zuen partidua, Lasarte eta Cristian marrazainen laguntzarekin.

Bestelakoak > Ikusle asko hurbildu zen liga-lehen partidua ikustera.



Aloñako jokalaria Mikel Palacios baloia kontrolatu guran, Iñigo Arregi (18) begira duela.

JOSETXO ARANTZABAL

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Lehenengo zatiko azken 15 minutuetan egindako hutsak ahaztuta, Aloña gai izan zen bigarren zatian aldapa gora jarri zitzaion partidua zuzentzen, Asier Ugartek eta Roberto Idigorasek sartutako golei esker. Bigarren zatia hasieratik bukaerara menderatu zuen etxeko taldeak. 0-2 ziren atzetik markagailuan eta baloia kontrolatuz Idiazabalen atea zulaizteko aukerak izan zituzten.

Xabi Elgarrestak hegalean lapurtu zuen baloia erdiratuz egin zuen etxekoendako lehen gola Asier Ugartek 65. minutuan; eta hiru minutu beranduago berdindu zuen norgehiagoka Roberto Idigorasek.

HIRUGARRENA EGITEKO AUKERA

Berdinketa lortuta garaipenaren golaren bila joan ziren oñatiarrak eta gol aukera gehiago izan zituzten. Azkena eta garbiena Idigorasek izan zuen, baina ez zuen asmatu atezainaren aurrean. Amaieran, puntuak banatu zituzten Aloñak eta Idiazabalek. "Atsedeneko emaitza ikusita puntua

ona dela esan dezakegu, baina bigarren zatia ikusita irabazteko aukerak izan ditugula uste dut", esan zigun Roberto Idigorasek.

INAUGURAZIO EKITALDIA

Partidua hasi aurretik Azkoagaineke zelai berria inauguratu zuten. Ekitaldian egon ziren, Euskal Herriko Federazioko presi-

dente Iñaki Dobaran; Gipuzkoako Federazioko presidente Juan Luis Larrea; Oñatiko alkate Lurdes Idoiaga; udal ordezkariak; berritze lanak egin dituzten enpresetako ordezkariak; eta Aloña Mendi kirol elkarteke eta futbol saileko ordezkariak. Alkateak egin zuen partiduko ohorezko sakea.

PREFERENTE > MODRAREN LIGAKO LEHENENGO PARTIDUA

Mundarriori irabazita, garaipenarekin hasi zuen Mondrak denboraldi berria

MONDRA

2-1

MUNDARRO

A.B. > ARRASATE

Partidu zailarekin hasi zuten atzo liga Mondrakoek. Baloia ateratzeko arazoak izan zituzten baten baino gehiagotan. Dena dela, maila ona erakutsi zuten eta garaipena lortu zuten etxean.

Lehenengo zatian oso ondo jokatu zuten Azkargortaren mutilek; baloiaren jabe izan ziren eta gola lortzeko aukera asko izan zituzten. Kepa Merka derrek sartutako golarekin, 1-0ko markagailuarekin joan ziren atsedendira.

Bigarren zatian Astigarragako taldea indar gehiagorekin itzuli zen zelaira eta Mondrako-



MONDRA Lehenengo zatian oso maila ona erakutsi zuten.

J.A.

ek arazoak izan zituzten baloia eskuratzeko. Baina, partidua amaitzeko hamar minutu gertatzen zirenean Mondrako Julen Erizen gola iritsi zen. Bost minutu beranduago Mondarrokoek lehenengo gola egitea lortu

zuten, baina, ezin izan zuten markagailuan gorago egin. Hori horrela, Mondrak ligako lehen hiru puntuak bereak ditu dagoeneko. Datorren astean ere partidua gogorra espero dute arrasatearrek Tolosaren kontra.

PREFERENTE >

Aretxabaletak 85. minutuan berdindu zuen

M.B. > BERGARA

Etsai gogorraren aurka jokatu zuen arren, UDAk 1-1 berdindu zuen Berioaren aurka, eta denboraldiko lehen puntuak eskuratu zuen. "Emaitza oso ona da guretako. Berio etsai gogorra da, eta kontraerasoan min handia egin digu. Dena den, gu gehiago izan gara eta merezitako berdinketa lortu dugu", esan zigun Igor Gordobilek. UDAk 85. minutuan lortu zuen berdinketa Oinatz Agirrek egindako golari esker. Aurretik, baina, bi baloi bota zituzten langara eta hiru aukera garbi sortu zituzten aretxabaletarrek. Mikel Antiak zuzentzen duen Berio lehen zatian egin zuen gola.

emaitzak eta sailkapenak

PREFERENTE MAILA

Sailkapena	Puntuak	JP
1. Real Union	3	1
2. Tolosa	3	1
3. Pasajes	3	1
4. Aurrera	3	1
5. Hondarribia	3	1
6. Mondra	3	1
7. Aloña Mendi	1	1
8. Idiazabal	1	1
9. Trintxerpe	1	1
10. Berio	1	1
11. Vasconia	1	1
12. UDA	1	1
13. Zumaia	0	1
14. Mundarro	0	1
15. Amaikak Bat	0	1
16. Euskalduna	0	1
17. Hernani	0	1
18. Anaitasuna	0	1

Emaitzak

Aurrera-Amaikak Bat	2-2
Anaitasuna-Tolosa	0-3
Mondra-Mundarro	2-1
Aloña Mendi-Idiazabal	2-2
Berio-UDA	1-1
Pasajes-Euskalduna	2-0
Vasconia-Trintxerpe	1-1
Real Union-Hernani	3-0
Hondarribia-Zumaia	3-2

Hurrengoak

Tolosa-Mondra	
Mundarro-Aloña Mendi	
Idiazabal-Berio	
UDA-Pasajes	
Euskalduna-Vasconia	
Trintxerpe-Real Union	
Hernani-Hondarribia	
Zumaia-Aurrera	
Amaikak Bat-Anaitasuna	

BESTELAKOAK

LEHENENGO ERREGIONALA

Tolosa-Mondra	1-2
Antzuola-Zestoa	1-2
Eibartarrak-Bergara	0-1
BTLS-Illintxa	1-0
Aretxabaleta-Mutriku	0-1

BIGARREN ERREGIONALA

Bergara-Ikasberri	3-5
-------------------	-----

OHOREZKO GAZTEAK

Anaitasuna-Aloña Mendi	1-1
------------------------	-----

LEHENENGO MAILAKO GAZTEAK

Elgoibar-Mondra	1-1
Aretxabaleta B-Soraluze	7-0
Illintxa-Bergara	6-0

OHOREZKO KADETEAK

Arrasate-Eibar	Bertan behera
Aloña Mendi-Bergara	3-2
Elgoibar-Aretxabaleta Arizmendu	2-1

LEHENENGO MAILAKO KADETEAK

Aretxabaleta-Eibartarrak	4-1
Bergara B-Aloña Mendi	0-3
Urki-Arizmendi	13-0

OHOREZKO INFANTILAK

Bergara-Anaitasuna	0-2
Aretxabaleta-Urola	1-4

EMAKUMEZKOAK

Aloña Mendi-Eibartarrak	0-1
Arizmendi B-Arizmendi	4-1
Mondra-Elgoibar	2-0



KUTXA BIZITZA-ASEGURUAK* BABESA ASEGURATUA.

Zuretarrek beti ongi estalita egotea pentsatzen duzun baino errazagoa da **Kutxa Bizitza Aseguruarekin***. Zure egoera pertsonal eta ekonomikoetara egokitzen da. Eta konponbiderik egokiena da orain geroko kezkarik gabe bizitzeko.



zer nahi duzu bihar?


www.kutxa.net

 **kutxa**

Biharko
Vida y Pensiones
Compañía de Seguros y Reaseguros, S.A.

*Kutxa Bizitza-Asegurua, Biharko Vida y Pensiones, S.A.rekin kontratatua. Kutxa da Biharko Vida y Pensiones aseguru-etxearen banku-aseguruen operadore esklusiboa; honek baimena ematen dio hari Biharko aseguru-etxearekin eragiketak egiteko, eta Bitartekarien Erregistro administratiboa berezian inskribatua dago C0654G20336251 zenbakiarekin.

Debagoieneko WEBGUNEAK



AHOLKULARITZAK

ASEGI
www.asegim.com
ESTRADOS
www.consultoriaestrados.com
LIZKER
www.lizker.com

AKADEMIAK
BASTIDA
www.bastida.es

ALTZARIAK ETA APAINKETAK
BZ SISTEMAS
www.goiena.net/blogak/BZ-sistemas

ANTZINAKO ALTZARIAK
ZUMADIA
www.zumadia.com

ARETOAK
360 ARETOA
www.360aretoa.com

ARGAZKIAK/ARGAZKILARIAK
MARIA JESUS
www.mjargazki.com

AROTZEGIAK
ARREGI
www.goiena.net/blogak/arregi
AZKARATE
www.goiena.net/blogak/azkarate
UGARTE
www.goiena.net/blogak/ugartearotza

ARKITEKTURA ESTUDIOA
BIARK
www.goiena.net/blogak/biark

ARRANDEGIAK
ITSAS EDER
www.goiena.net/blogak/itxaseder

ASEGURUAK
BRIZ ASEGURUAK
www.goiena.net/blogak/briz-aseguruak
LAGUN ARO
www.seguroslagunaro.com
WINTERTHUR
www.axawinterthur.es

AUTO - KONTZESIONARIOAK
4QUATTRO4
www.4quattro4.com

BIDAIA AGENTZIAK
BARCELO
www.barceloviajes.com

BITXITEGI TAILERRA
OSKAR VITORIA
www.oskarvitoria.com

EGUZKI OIHALAK
TOLDOS LETE
www.toldoslete.com

ELEKTRIZITATE INSTALAZIOAK
ARETXARGI
www.goiena.net/blogak/aretxargi
GORLA
www.goiena.net/blogak/gorla

ELEKTRIZITATE MATERIALAK
SETALDE
www.setalde.com

ELKARTEAK

EUSKAL HERRIKO MAHAI-FUTBOL
FEDERAZIOA
www.goiena.net/blogak/ehmff

ERAIKUNTZAK
CONSTRULAN
www.construlansl.com

ERROTULOAK
PANDO
www.goiena.net/blogak/pando
ROTUDENAK
www.rotudenak.com

ESKULANAK
IZEDER
www.goiena.net/blogak/izeder

ESTETIKA ZENTROAK
ANGELA
www.angelaestetika.net
GUZTIZ EDER
www.goiena.net/blogak/guztizeder
LILURA
www.goiena.net/blogak/lilura
MAIER
www.goiena.net/blogak/richimaier

FISIOTERAPIA ZENTROA
EKIN
www.goiena.net/blogak/ekin

FORMAZIOA
LEGE SOZIOLOGIA INSTITUTUA
www.iisj.es

GARAJEAK / KONPONKETA
AMG AUTOAK
www.amgautoak.com
AUTOS ARETXA
www.autosaretxa.com
GALLASTEGI MOTOR SPORT
www.goiena.net/blogak/gallastegi
JC RACING
www.goiena.net/blogak/jcracing

GARBIKETAK
HEMEN
www.hemen-garbitetak.com
DENETIK GARBITASUN
MEKANIZATUA
www.goiena.net/blogak/denetik

GIMNASIOAK
IRUDI SPORT
www.goiena.net/blogak/irudisport
ZAINDUZ
www.goiena.net/blogak/zainduz

GOZOGINTZA EKOLOGIKOA
ETA INTEGRALA
GALGORRI
www.goiena.net/blogak/galgorri

HARATEGIA
LANDALUZE
www.goiena.net/blogak/galgorri

HAUR PARKEAK
OKIPARK S.L
www.goiena.net/blogak/okipark

HESTEBETEAK
URDEKI
www.goiena.net/blogak/urdeki

HIZKUNTZA AKADEMIAK

MONDRAGON LINGUA
www.mondragonlingua.com
LA PUERTA AL INGLES
www.goiena.net/blogak/puerta-ingles

HOTELAK
HOTEL MONDRAGON
www.hotelmondragon.com

IKASTETXEA
ARETXABALETA INSTITUTUA
www.iaretxabaleta.com
ARIZMENDI IKASTOLA
www.arizmendi.ikastola.net
ELKAR-HEZI IKASTETXEA
www.elkarhezi.com
MONDRAGON UNIBERTSITATEA
www.mondragon.edu

ILE-APAINDEGIAK
RICHI
www.goiena.net/blogak/richimaier
KIZKUR
www.kizkur.com

INDUSTRIA HORNIDURAK
SUMINISTROS UGARTE
www.suministrosugarte.com

INFORMATIKA
DCA COMPANY
www.dcacompany.com
ARITU
www.aritu.com

INGENIARI GEOLOGIKOA
HARRILUR
www.harrilur.com

INMOBILIARIAK
KOROSTI
www.inmokorosti.com

INPRIMATEGIA
EGUZKIGRAF
www.goiena.net/blogak/eguzkigraf

ITURGINTZA ETA BEROGINTZA
URBIETA
www.goiena.net/blogak/urbieta
URKO MANTENIMIENTO, S.L.
www.goiena.net/blogak/urko

JANARIAK
GERTU
www.goiena.net/blogak/gertu
ARANTXA PRODUKTU FRESKOAK
www.goiena.net/blogak/arantxa

JANTZI DENDAK
MARKIEGI
www.goiena.net/blogak/markiegi
UDALAITZ
www.goiena.net/blogak/udalaitz

JATETXEA
BASTER ALDE
www.baster-aldejatetxea.com
DRAGON ORIENTAL
www.goiena.net/blogak/dragon-oriental
DUKIENA
www.goiena.net/blogak/dukiena
GOIKO BENTA
www.goikobenta.com
MAULANDA MERENDERUE
www.goiena.net/blogak/maulanda
IXAUN
www.goiena.net/blogak/ixaun

OTZETA

www.goiena.net/blogak/otzeta
TABERNA BERRI
www.goiena.net/blogak/tabernaberrri
ZUMELAGA
www.zumelaga.com

KALAMUA
KLOROFILA
www.klorofila.com

KIROL DENDAK
LAINO. SKATE & SNOW
www.laino.info

KONGRESU ETA BILKURAK
GANDIAGA TOPAGUNEA
www.gandiagatopagunea.com

LANDETXEA
ARTEAGA
www.artegalandetxea.com

ATERBE
www.aterbe.com
LAMAÑO-ETXEBERRI
www.goiena.net/blogak/lamaino-etxeberrri
UXARTE
www.uxarte.net

LANTEGI ETA TAILERRAK
BATUAK S.A.
www.batuak.com

GAURKO, S.A.U.
www.gaurkosa.com
LINEAS LASA
www.lasa.es

MIRVAT
www.mirvat.com
PERFIPAR
www.goiena.net/blogak/perfipar
TALLERES CARPINSO S.L.
www.carpinsa.com
SEIN BATU, S.L.
www.sein.es

LEIHOAK
ARGI-PLASTIK
www.goiena.net/blogak/argi-plastik
EGO
www.goiena.net/blogak/ego
ION LEIHOAK
www.puertasyventanas-ion.com

LORADENDAK
EKILORE
www.goiena.net/blogak/ekilore
LORELAN
www.goiena.net/blogak/lorelan
MAYTE
www.goiena.net/blogak/mayte

OINETAKOAK
KORO ZABALETA
www.goiena.net/blogak/korozabaleta

OKINDEGIAK
AIASTUI
www.goiena.net/blogak/aiaastui
BEROGI
www.goiena.net/blogak/berogi
OGIZUN
www.goiena.net/blogak/ogizun

OPARIAK
MERKEOPARI
www.goiena.net/blogak/merkeopari

OPTIKAK

MULTIOPTICAS LARRAÑAGA
www.goiena.net/blogak/multipticas
INSTITUTO OPTICO
www.goiena.net/blogak/optico

OSTALARITZA
GARAIA OSTALARITZA
HORNIKETAK
www.goiena.net/blogak/garaia

PROIEKTUAK ETA DEKORAZIOA
FORMAK
www.formak.net
IPAR PROJECT
www.iparproject.com

PUBLIZITATE AGENTZIAK
AKORT-PUBLICIDAD
www.akort-publicidad.com

SUKALDERAKO ALTZARIAK
BOLU
www.goiena.net/blogak/bolusukaldeak

TABERNAK
EZKUTU
www.goiena.net/blogak/ezkutuorly
ORLY
www.goiena.net/blogak/ezkutuorly
GUREA
www.goiena.net/blogak/gurea
HAMAIIKA... TABERNA
www.goiena.net/blogak/hamaikataberna
ZIRIPOT
www.goiena.net/blogak/ziripot

TATUAJEAK
GANESHA
www.goiena.net/blogak/ganesh

TAXIAK
GORKA GARAI
www.goiena.net/blogak/gorkataxi

UDAL ZERBITZUAK
GAZTEEN INFORMAZIO
BULEGOA
www.aizue.com
ARRASATEKO EUSKARA
BIZIBERRITZEKO PLAN NAGUSIA
www.goiena.net/blogak/aebpn

UMEENDAKO ARROPA
HAURTXXOA
www.goiena.net/blogak/haurtxoa

ZERAMIKAK ETA BAINUAK
URBIETA
www.goiena.net/blogak/urbieta
GELATZU
www.gelatzu.com

ZERBITZU DIGITALAK
ATAI
www.goiena.net/blogak/atai

ZUR LANTZAILAK
ELEJALDE
www.goiena.net/blogak/elejalde

Bisita ezazu:
www.goiena.net/merkatua

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu 943 25 05 05 zenbakira.

LEHENENGO ERREGIONALA > BTLSEN LEHENENGO PARTIDUA IPINTZAN

BTLSek ondo hasi du liga Ipintzako zelai berrira moldatzen jakin zuelako

BTLSeoak indartsu atera ziren zelaira ligako lehenengo partidua jokatzeraz

Zelai astun bati egin behar izan zioten aurre bergararrek, baina, ondo moldatu ziren

BTL S.K.E.

1-0

ILINTXA S.D.

ARRITXU BARRUSO > BERGARA

Bergarako BTLs taldeak ligako lehenengo partidua zuen zapatu arratsaldean Ipintzan. Primeran hasi du liga, lehenengo erregionalera igo berri den talde honek. Legazpiko Ilintxa taldearen kontra 1 eta 0 irabazi zuen eta.

Partidua oso berdinduta egon zen bi zatietan ere; Ilintxa-koek gola lortzeko aukera garbia izan zuten lehenengo zatian, baina, azkenean, baloia kanpora bota zuten. Hutseko berdinketarekin joan ziren, beraz, atse-denaldira. Bigarren zatia hasi



Indarra eta gogortasuna erakutsi zuten zapatu arratsaldean BTLSeoek Ipintzako zelai berrian.

JOSETXO ARANTZABAL.

eta minutu batera, baina, bergararren gola iritsi zen. Nathan Olabarria izan zen garaipenaren gola egin zuena. Markagailua alde zutela, gero, oso ondo eronan zuten bergararrek partidua-

ren bigarren zatia, eta legazpiarrek, berriz, ez zuten golerako aukerarik lortu. Jose Luis Beitia, BTLs taldeko kirol ardura-duna, pozik agertu zen taldeak egindako lanarekin: "Oso talde

politza daukagu aurten. Iaz baino jende gehiago gara eta ilusio eta gogo handiarekin hasi dugu aurtengo denboraldia. Gogor egin dugu borrokan gaur eta horrela lortu dugu garaipena".

ZELAI BERRIRA MOLDATZEN

BTLSeoek Ipintza futbol zelai berrian jokatzen zuten lehenengo aldia zen zapatukoa, eta badi-rudi belarra zeharo asentatu barik dagoela oraindik. "Zelaiak asko pisatzen duela dirudi. Baloiak bote handia egiten du eta, beste batzuetan, asko motel-tzen da. Baloia belarraren gainean doanean oso poliki doa. Dena dela, apurka-apurka joango da hobetzen eta finkatzen. Esan didate makina bat ere bada-goela horretarako" azaldu du Beitiak. Zelaiaren moteltasunari eta pisuari aurre egiteko indarra eta garra behar ziren eta BTLSeoek horixe da erakutsi zutena; garaipena lortzeko grina. Legazpiarrek, berriz, ez zuten egoera horretara moldatzerik lortu. Zelai estreinatzen zen eguna izanda, eta San Martin jaiak zirela-eta, giro polita sortu zen Ipintzan zapatu arratsaldean.

AURRERA BEGIRA

Lehenengo erregional mailan mantentzea da BTLSen aurtengo helburu nagusia, eta adierazi dute hori lortzeko gogor egingo dutela lan. Zapatuan lortutako emaitzak ere asko motibatu ditu. Datorren zapatuan Lazkaoaren kontra jokatuko dute eta bi aste barru, berriz, derbia Bergararen kontra. Ikusteko partidua izango da hori.

LEHENENGO ERREGIONALEKO GAINERAKO TALDEAK

Sufrituta, ligako lehen hiru puntuak ekarri zituen Mondrak Tolosatik

Partidu gogorra jokatu zuen Mondrak zapatuan Tolosako Usabal zelaian. Borroka asko, korrikaldi luzeak, eta defentsa lan handia. Egindako lan gogorrek, baina, emaitza ona eman zuen: Mondrak 1 eta 2 irabazi zien tolosarrei. Lehenengo zatian Gorka Juradok egin zuen gola. Bigarren zatian Makuk partidua erabaki zuen zelaiaren erditik egindako golarekin.

Aretxabaleta hamarrekin geratuta, berehala etorri zen Mutrikuren gola

Aretxabaletan ez zuen zortetik izan ligako lehenengo partiduan eta 0 eta 1 galdu zuen Mutriku taldearen kontra Ibarren. Lehenengo zatia amaitzeko bost minutu falta zirenean Julen Moreno jokalaria egotzi zuten eta hamarrekin geratuta Mutrikurendako 8 minutu aski izan ziren kornetretik gola egiteko. Bigarren zatian, aretxabaletarrak nagusitu ziren arren, ez zuten golik lortu.

Bergarak nagusitasuna erakutsi zuen zapatuan Eibartarrak-en kontra

Bergara futbol taldeak ere ondo hasi du aurtengo liga. Eibartarrak-en kontra 0 eta 1 irabazi zuten atzo arratsaldean. Bergararrak oso ondo jokatu zuten eta partidua guztian zehar nagusi izan ziren. Aukera asko izan zituzten, baina, gol bakarra lortu zuten azkenean ere. Imanol Cabanillas kapitainarena izan zen gola. Bergarar asko izan ziren partidua ikusten.

Antzuolak Zestoaren kontra galdu egin zuen zapatuan Estalan

Antzuolarrek Zestoaren kontra bat eta bi galdu zuten etxean. Lehenengo zatia oso parekatu izan zen, baina, 44. minutuan Antzuolako Ibai Zabalok markagailua estreinatzea lortu zuen. Bigarren zatian indartsu itzuli ziren zestoarrak zelaira eta hamar minututan bi gol sartu zituzten. Antzuolak berdinketa lortzeko saiakera egin zuen, baina, zestoarren atezaina fin ibili zen.

IKER

SUKALDEAK:

ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43
OÑATI: San Lorenzo 1 / 943 53 35 48

FAGOR
Besteak baino gehiago



ZIKLISMOA > SAN MIGEL SARIA

Mikel Elortzak irabazi zuen gazte mailako 49. San Migel saria zapatuan

Lehena iritsi zen Olakuako helmugara 01:56:23ko denborarekin

Bigarrena eta hirugarrena Gorka Olaizola eta Mikel Madinabeitia izan ziren

NEREA MENOR > OÑATI

Zapatuan ospatu zen Oñatiko Olakua auzotik gazte mailako 49. San Migel saria. 10:30ean hasi eta 12:30ak inguru amaitu zuten lasterketa 54 txirrindulariek, nahiz eta hasiera batean 65 partehartzaile agertu.

Osintxun buelta eman ondoren eta Bergararuntz abiatu zirenean, lasterketa apurtu eta seik ihes egiten zuten. Hauen artean, Mikel Elorza, Urtzi Murgia, Imanol Ugalde eta Iker Iturria. Lasterketa amaitzear zegoenean, Gorka Olaizola eta Thomas Segura batu zitzaizkien ihesi zihonan taldeari.

Azkenean, Mikel Elorza izan zen lasterketako irabazlea 01:56:23ko denborarekin eta batezbesteko 39,18 kilometroko abiadurarekin. Bakarrik iritsi zen helmugara, izan ere, bere



Txirrindulari gazteak atzo Olakuan, irteeraren aurretik.

J.A.

atzetik zetozenek 01:56:31ko denbora egin zuten: Gorka Olaizola –bigarren postua lortu zuen–, Mikel Madinabeitia –hirugarren gelditu zen–, Imanol Ugalde eta

Urtzi Murgiak. Lehenengoa eta hirugarrena Lan Mobel taldekoak dira eta bigarrena Viveros San Antoniokoak. Hirugarren postua lortzeaz gain, Madinabeitiak

mendiko saria ere lortu zuen.

Taldeko sailkapenean Lan Mobelek irabazi zuen aurreneko postua 05:50:18ko denborarekin. Bigarren postuan, Andoaingo txi-

rrindulari taldea klasifikatu zen 05:50:29ko denborarekin. Hirugarren postua Puertas Diproca-rentzat izan zen; 05:51:22ko denbora egin zuten hauek.

IBILBIDEA

Bi ordutan egin zituzten lasterketaren 76 kilometroak; eta eguraldiak ez zuen batere lagundu; amaieran atertu zuen arren, euri artean egin zuten ibilbide osoa txirrindulariek. "Eguraldiak ez zigun batere lagundu, baina ez genuen arazorik eduki lasterketa amaieran atertu egin zuen-eta", dio Pedro Irurtzunek, Aloña xirrindularitza saileko presidentek. Olakua auzoan hasi zuten lasterketa eta Bergarako norabidea hartu zuten. Osintxura heldu zirenean buelta eman zuten Bergararuntz. Oñatira heldu eta Udanako gaineraino igotzen jarraitu zuten bailaraz aldatu arte. Urola aldean sartu ziren orduan; Legazpitik igaro ondoren Urretxu zeharkatu zuten txirrindulariek eta Deskargatik Bergaraino iritsi ziren berriz ere. Elorekitik Oñatirako bidea hartu zuten berriz, helmugara heldu arte.

Datorren zapatuan, hilaren 20an, afizionatuen karrera ospatuko da, Lehendakari Txapelketa. 10:00etan irtengo da Olakuatik, eta denboraldiari agur esango diote Oñatin.



JOSETXO ARANZABAL

Mendiko bizikleta travesia Oñatin

Domekan, ospatu zen 19. urtez mendiko bizikleta travesia Oñatin. Bide laburra -30 km- edo luzea -40 km- egiteko aukera zuten partehartzaileek eta gehienek luzea aukeratu zuten. San Martinetik, Elorrixara, gero Azkarretara eta Lurgorritxa pasa ondoren bideak banatzen ziren. Motza Araotz aldera zihonan eta luzea Zamalbidetik Urrexolara. Giro ezinhobea egon zela esan ziguten antolatzaileek.

ESKUBALOIA > SAN MIGEL TXAPELKETA

Txapelketaren finala jokatu dute zapatuan Bergarak eta Eibarko Haritzak

Finalerdietako norgehiagoketan Eibarko Haritzak Aloña Mendin aurka irabazi zuen eta Bergarak Zarautzen aurka

NEREA MENOR > OÑATI

San Migel txapelketaren finalerdia jokatu zituzten zapatuan Zubikoan. 16:00etatik aurrera Bergara-Zarautz eta 17:30ean Aloña-Eibar.

Lehenengo partiduan, Bergara irten zen garaile 25-18ko emaitzarekin. Hasieran flojo xamar ibili ziren, gol gutxi sartu zituzten eta pasiboki jokatu zuten. Bigarren zatian, 5-1eko defentsarekin aurretik jarri ziren. Azkenean, erraz asko irabazi zuten partidua. Aloña Mendi eta Eibarko Haritza



Bergarak Zarautzi irabazi zion zapatuan, 25-18.

JOSETXO ARANZABAL

taldearen arteko partiduan, eibartarrek lortu zuen garaipena, 29-26. Aloña eskastxo hasi zen, baina 15. minututik partiduan sartu eta gehiago defenditu zuten arren ezin izan zuten garaipena lortu.

FINALA ZAPATUAN

Datorren zapatuan, hilare 20an, 3. eta 4. postuko partidua jokatu dira, baita finala ere. Bergara eta Haritza 17:30ean izango dira aurrez aurre.

Jokin Etxaniz > Aspeko kirol zuzendaria

"Pilotaria gustura ez dabilenean, orduan sufritzen dut gehien frontoian"

EDU MENDIBIL > BERGARA

Jokin Etxanizek (Bergara, 1970) hamabost urte eman zituen profesional mailan, orain dela hiru urte azken partidua jokatu zuen arte. Ordurako Aspeko kirol zuzendaria genuen. Udan hara eta hona ibili da, herririk herri, eta pozik dago bere aginduetara dituen pilotariek emandako mailagatik.

Uda ondo joan da Asperendako...

Bai, jokatutako txapelketa gehienetan nagusitu gara eta horrez gain maila oneko partiduak ikusi izan dira. Pilotariek euren onena eman dute. San Fermineko txapelketa izan zen irabazi genuen lehena, Xalarekin eta Barriolarekin, eta ondoren Gasteizekoan Titin eta Pascual izan ziren txapeldunak; Zarautzekoan Titinek Laskurainekin batera eraman zuen txapela; eta Lekeitiokoan Gonzalezek eta Barriolak irabazi zuten. Gainera Gasteizeko eta Zarautzeko finaltan bi bikoteak Aspekoak ziren. Esan daiteke Donostian bakarrik *huts* egin genuela; han Assegarcekoak izan ziren nagusi.

Pilotarien artetik, zein nabarmenduko zenuke?

Zaila da hau edo bestea nabarmentzea. Edozein modutan, zorionez, atzean geratu dira eskuekin izan zituen arazoak eta Barriolak uda borobila egin du, urtean zehar egindako lanari jarraipena emanez; Xala izan da udako aurrelari onena beharbada, emaitza eta ikusgarritasuna uztartuz; eta Titinena txapela kentzeko

"Uda ona izan da Asperendako; txapelketa gehienetan nagusitu gara"

"Barriola, Titin, Xala eta Berasaluzek partidu ederrak jokatu dituzte udan"



Jokin Etxaniz Bergarako Udal Pilotalekuan, zapatuan ateratako argazkian.

JOSETXO ARANTZABAL

modukoa da: aurkezpen beharrik ez dauka. Dena ematen du eta haren jarrera besteendako eredu ezin hobea da, ez dago dudarik. Asegarcekoen artean Pablo Berasaluze izan da onena agian; lehendik ezagutzen genuen baina lehen planora itzuli da berriro, ilusio ikaragarriarekin eta sekulako partiduak eginez.

Bizikletak ez dakit, baina pilota udarako aproposa ei da.

Bai, partidu asko jokatzen dira han eta hemen eta zaleak pilota gosez egoten dira. Jende asko etorri izan da jaialdietara.

Kontuan izan herri askotan, jaiak direla eta, urteko egun bakar baten izaten dela profesionalak gertutik ikusteko aukera eta horrek giro berezia sortzen du. Pilotarientzat beharbada pixka bat nekagarria egiten da uda, kilometro asko egin behar izaten dituztelako hara eta hona.

Zuen pilotarien lana jarraitzean, harmailetan sufritzen duten horietakoa zara?

Batzutan bai, batez ere pilotaria gustura ez dabilela ikusten duzunean. Orduan pasatzen dut txartoen. Azken baten, badakizu

atzean zein lan dagoen eta gauzak ez zaizkienean ateratzen gaizki pasatzen dut.

Logroñoeko San Mateoko ferieren ostean, lau t'erdiko txapelketa hasiko da. Nor izan daiteke aurtengo sorpresa?

Txapela denon ahotan diren pilotarien artean izango da, baina lau t'erdia beti ematen du kantxa osoak baino sorpresarako tarte handiagoa. Ikusi behar. Logroñoeko txapelketa amaitzean hasiko dugu prestaketa espezifikoarekin; batez ere atzean jokatzen dutenek izaten dute aurre-

ko mugimendu batzuk lantzeko premia. Bestela, prestaketa fisiko aldetik udako sasoi puntuari eustea izango da helburu nagusia. Txapelketa erakargarria da oso eta ea partidu ederrekin gozatzetik daukagun.

Atzo Mikel Beroiz debutatzen zen Huarten, Asperen eskutik. Nolako pilotaria da?

Oso maila ona eman du amateur mailan eta ikusi behar profesionalarekin nola moldatzen den, jautzia ez delako erraza izaten batzutan. Ez da jotzailea baina bi esku politak dauzka, kantxa ondo betetzen du, aurrean duen bikotekidea laguntzen badaki eta fina da, langilea. Beti da pozgarria gazten baten debuta eta ea gauzak ondo irteten zaizkion, poliki-poliki konfiantza hartzeko.

Eta bukatzeko, Debagoieneko zaleen kezka nagusia: Bergarako Udal Pilotalekuak zein Uarkapek programaziotik kanpo jarraitzen dute.

Pena daukat, baina ez bergararra naizelako, baizik eta Udal Pilotalekua beti izan delako erreferente bat zaleendako eta pilotariak gustura etorri izan direlako Bergarara jokatzerara. Astelena itxita egon zen bitartean pozgarria izan zen Bergaran jaialdiak antolatzea, berriro hona etortzea; primeran hartu gintuzten. Gauza bera Arrasaten izan garen bakoitzean. Ea laister berriro lehen planora itzultzen diren pilotaleku biak, Debagoieneko zaletasun handia dago-eta. Zaleek merezi dute.

"Lau t'erdia begira atzean jokatzen dutenek izaten dute aurreko mugimendu batzuk lantzeko premia"

"Ea Uarkape eta Udal Pilotalekua lehen planora itzultzen diren"



ikasi egingo duzu
**INGELESA, EUSKERA,
FRANTSESA, ALEMANA, TXINERA.**

palabrahitza word

eskolak:

**ESKORIATZA-ARAMAIO
ARETXABAETA-ARRASATE-OÑATI**



ARRASATE-MONDRAGON
Avda. Alava, 4
943 71 20 55

OÑATI-OÑATE
Olakua, 14
943 71 60 00

BILBO-BILBAO
Buenos Aires, 7
94 661 34 67

DONOSTIA-SAN SEBASTIAN
Zubieta, 26
943 43 31 02

VITORIA-GASTEIZ
Florida, 8-A
945 15 01 55

MONDRAGÓN
UNIBERTSITATEKO
ikasle bazara
% 25
deskontua
AURREZ AURREKO
ESKOLETAN



Cambridge Unibertsitateko
azterketak gure zentroan.



ESKOLA
ERAGINKORRAK,
NAHIERAKO ESKOLAK

MAILA GUZTIAK,
ADIN GUZTIETARAKO

Zure negozioaren erakusleihoa Interneten

www.goiena.net-eko blog komertzialak



- Zure negozioko eskaintzaren berri sarean
- Euskarri merkea
- E-maila onenak Google eta beste bilatzaileetan
- Erabiltzeko erraza

Prezioen eta ikastaroen gaineko informazioa:
jpenagarikano@goiena.com • Telefonoa: 943 25 05 05

Goiena.net

www.goiena.net/blogak

/aebpn
/aiastui
/arantxa
/aretxargi
/argi-plastik
/arregi
/atai
/azkarate
/bastida
/briz-aseguruak
/BZ-sistemas
/bolusukaldeak

/denetik
/dragon-oriental
/dukiena
/ego
/eguzkigraf
/ekilore
/ekin
/elejalde
/ezkutuorly
/galgorri
/gallastegi
/ganesha
/garaia

/gertu
/gorkataxi
/gorla
/gurea
/gutzizeder
/hamaikataberna
/itxaseder
/irudisport
/ixaun
/izereder
/jcracing
/lamaino-etxeberrri
/lorelan

/korozabaleta
/kizkur
/markiegi
/maulanda
/mayte
/merkeopari
/multiopticas
/ohiak
/ogizun
/okipark
/optico
/otzeta
/pando

/perfiar
/puerta-ingles
/richimaier
/tabernaberrri
/udalaitz
/urdeki
/ugartearotza
/urbietza
/urko
/vitoria
/zainduz
/ziripot

Eta baita ere:

www.aizue.com
www.amgautoak.com
www.baster-aldejate-bea.com
www.ehmff.com
www.gelatzu.com
www.goikobenta.com
www.haurtxoa.com
www.kizkur.com
www.klorofila.com
www.landaluze.com
www.lilura.com
www.toldoslete.com
www.uxarte.net
www.biark.net



G2a

Goienka2a > KULTURA ETA AISIALDIA



> **MUSIKA**
Burning talde mitikoak kontzertua eman zuten Aramaion > 26



> **UDAKO ARGAZKIAK**
Lehiaketan parte hartzeko azken egunak > 24-25

> **JABIER AZPIAZU**
Aloña Mendi kirol elkarteko presidente Jabier Azpiazu oñatiarrarekin izan gara aste bukaeran. Gipuzkoako presidenterik beteranoena da Azpiazu > 29



OHOREZKO KIDEAK Atzo omendutakoak: goian, Ramon Etxaniz, Mari Karmen Gallastegi, Beitia eta Felisin; makurtuta, Reyes Azkoitia eta Guti. Beraiekin Ibañez, Canseco eta Gallastegi kofradiako ordezkariak.

J. ARANTZABAL

Sei ohorezko kide berri ditu Tostoiien eta Erreilenoen Kofradiak

Reyes Azkoitia, Ramon Etxaniz, Mari Karmen Gallastegi, Felix Beitia, Luis Mari Gutierrez eta Felix Iñiguez de Heredia izan dira aurten omendutakoak

Hogei kofradia batu ziren Bergaran atzo

EDU MENDIBIL > BERGARA

Bergarako udaletxeko osoko bilkuren aretoa jendez lepo bete zen Erreileno eta Tostoiien Kofradiaren IX. kapituluaren. Atzoko ekitaldian Mari Karmen Gallastegi Ekonomia katedraduna, Reyes Azkoitia pilota entrenatzailea, Ramon Etxaniz txistularia eta herriko jaietan antolatzaile lanetan ibiltzen diren Luis Mari Gutierrez, Felix Iñiguez de Heredia eta Felix Beitia izendatu zituzten ohorezko kofradiako ohorezko kide. Beste kofradia askok ez bezala, orain arte bergararrak bakarrik izendatu dituzte ohorez-

ko kideak. Atzoko ekitaldian Juan Luis Bikuña kazetariak egin zituen maisu-zeremonia lanak. Erreileno eta tostoiak tartean izanik, nola ez, Bikuñak hitz gozoak izan zituen omenduendako.

BERGARAKO IZAERA ZABALDU

Kofradia bergararrak ospatzen zuten IX. Kapituluari ekin aurretik, Alai Taldea abesbatzaren emanalditxoarekin gozatu ahal izan zuten udaletxean batutakoek. Jarraian, Agurne Barruso alkatearen ongi-etorria iritsi zen: "Kanpotik etorritako beste kofra-

dietako kideei, omendutakoei eta ekitaldira hurbildutako guztiei, ongi-etorri. Bergarak bere tokitoxoa izan nahi badu, berezko egiten gaituzten elementuak zaindu beharra daukagu. Hor dira, besteak beste, Bergararen izaera industrialra, tradizio handia izan duen ehungintza edo eraikin historikoak, Seminarioa edo Olaso Dorrea tartean. Eskaera bikoitza egin nahi dizuet: alde batetik gure izaera herriko beste elementuekin uztartzea eta bestetik Bergararen izena eta izaera han eta hemen zabaltzeko lanean jarraitzea".


Barruso alkatearen hitzen ostean, Juan Luis Bikuñak atzo Bergarara etorritako 20 kofradiak aurkeztu zituen. Kofradia bakoitzeko kide bana igo zen jarraian osoko bilkuren aretoko mahai nagusira, agintariekin eta Tostoiien eta Erreilenoen Kofradiako hainbat kiderekin batera, tartean Antonia Canseco presidentea. Victoriano Gallastegi Bergarako alkate ohia da kofradiako diruzaina eta haren hitzak etorri ziren gero; bereziki esker-

(26. orrialdera doa)



UDAKO ARGAZKIEN ASTELEHE

Argazki guztiak fotoblog honetan:



TRANBIA. 2008ko uztailaren 12an Milanon tranbian arrasto koloretuak momentu luze batez ikusi ahal izatian gozamenen. /Argazkia: Antton Zubia /Oñati



PARADISUA. Punta Canan abuztuan ateratako argazkia. Plazan jarri gñan lehenengo egunean ta bakoitzak bere begiak horizonteko puntu baten fijo zeuzkala, paradisuen paradisua hori.... /Argazkia: Estitxu Lobato /Bergara



KATUA INGURATUTA. Uztailean Eskoriatzan Aingeru Guardara bidean ateratako argazkia. Katua hesi gainean zegoen eta txakurrak adi begira. /Argazkia: Gartxot Zubizarreta /Eskoriatza



TXERRIA HONDARTZAN. Argazkia Kubako Barakoa herriko hondartzan aterata dago aurtengo abuztuan. Hondartza inguruan dauden 'baserri'etako txerriak hondartzara joaten dira eguzkia hartzera eta jana bilatzera; irudian, txerri ama txerrikumeekin. /Argazkia: Amaia Iturbe /Arrasate



ZAKURRA. Zakurtxo honek nahiko lan izan zituen Donibane Garaziko gaztelura igotzen aldapa dexentekoa bait da. /Argazkia: Ana Herrera /Arrasate



GINEBRA. Bereziki bidaiatzean konturatzen gara mundua ulertzeko makina bat modu dagoela. Abuztuaren hasieran Ginebran ateratako argazki honek ere bere ikuspegia ematen digu. /Argazkia: Iñaki Larrea /Arrasate




GLAZIARRA. Perito Morenoko argazkia. Egun ahaztezina igaro genuen 10 pertsonak. Egun guztia egon ginen bertan, entzuten diren izotz soinuak benetan bertara jua eta entzutekoak dira. /Argazkia: Lohitzune Fernandez /Bergara



ILUNABARRA. Jerikoarako hondartzatik ilunabarra Brasilen, 2008ko abuztuan. Hau bai uda izan duguna. Oso polita da eta merezi du. /Argazkia: Itziar Kortabarria /Oñati



ERRALDOIA. Aurtengo Sanjuanetan ateratako argazkia da, erraldoiak azken dantza egiten duteneko momentuan egina. /Argazkia: Andoni Iñarra /Arrasate



ATACAMAKO FLAMENKOA. 2008ko abuztuan Atacamako desertuko gatzagetan flamenkoei ateratako argazkia. /Argazkia: Josu Lizarralde /Oñati



SUITZAKO BEHIA. Abuztuan Iterlaken (Suitza) inguruko mendietan behi bati ataratako argazkia. /Argazkia: Asier Moral /Arrasate



TXINGURRIA. Ekuadorre txingurri ibiltariak hostoak jaten dituzte eta ez dute toki finkorik bizitzeko, taldean lan egiten dute eta benetan ikusgarriak dira. /Argazkia: Rober Gomez /Bergara

NEKO GOIENKARIA IV. LEHIAKETA



www.goiena.net/blogak/argazkiak



KARAKOLA. Karakolen antzera gu be etxia bizkarrian hartu eta Pontevedrara juan giñen hango itsasertzeko ilunabar goxuez gozatzera... /Argazkia: Mireia Lizarralde /Bergara



BACHALPSEE. Nahiz eta ahoskatzeko eta gogoratzeko zaila izan, ahaztezina da argazkiko paisaia: Bachalpsee lakua, Eiger, Mönch eta Jungrau bereganatzen dituen mendilerroa... /Argazkia: Josune Perez /Bergara



GARIA. Errioxara lehengusuekin aste bukaera pasatzera joan gineneko argazkia da. Ardoa bai, baina gari zelaia ere edarrak benetan. /Argazkia: Izaskun del Fresno /Antzuola



APAINDUTAKO KALEA. Bartzelonako Graciako jaietan urtero kalea apaintze txapelketa ospatzen dute. Erabiltzen duten gehiena apaintzeko reziklatutako gauzekin eginda daudela. "Bitxia eta ikus-tekoa". /Argazkia: Gotzon Agirre /Arrasate



LEIHOTIK BEGIRA. Corn Island uharterko etxeak koloretsuak dira, eta bizilagunak alaiak. Neskatxa leihotik begira zegoen, eta irribarre ederra oparitu zigun. /Argazkia: Leire Etxeberria /Oñati



MUTIKO KUADRILA. Nikaraguako laku batean bañu bat hartzen zebiltzan mutiko kuadrilla bat da. /Argazkia: Erlantz Iturbe /Antzuola



MONT SAINT-MICHEL. Abuztuan ateratako argazkia, Saint-Michelera bidean. Toki turistikoa den arren, uste genuena baino askoz ere jende gutxiagorekin egin genuen topo. Ilargi betea ez zegoela-eta, ez zitzaigun tokatu herrixka urez inguratuta ikustea. /Argazkia: Maddi Bengoetxea /Aretxabaleta



KALE ESTUA. Abuztuan Dubrovnik-eko kale estuetan zehar galduta ibili ginene eta hona hemen ataratako argazkia. /Argazkia: Bittor Carballeas /Eskoriatza



COCKTAIL. Argazki hau New Jersey-ko (AEB) Atlantic City herrian aterata dago 2007ko udan. AEBetako "ekialdeko kostako Las Vegas" bezala ezaguna den herri horretan kasinoak eta luxuzko hotel eta tabernak dira nagusi eta guk ere ezin izan genion eutsi hondartza alboko terrazatxo batean cocktail goxo bat dastatzeari.

Baldintzak:

- Udako argazkiak izan behar dira: aurtengoak edo beste uda batekoak. (Argitaratu gabek)
- Debagoieneko edozeinek parte hartu ahal izango du (ez da adin mugarik izango).
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta.
- Bidali ahal izango dira e postaz argazkiak@goiena.com helbidera edo Goienaren egoitzaren batera ekarri.
- Argazkiak jasotzeko azken eguna, 2008ko irailaren 17a.

- Parte-hartzaile bakoitzak bidali ahal izango ditu, gehienez ere, 5 argazki.
- Adierazi beharko dira: egilearen izen-abizenak eta nondarra den, adina eta telefonoa, eta argazkiaren deskribapena (noiz eta non ateratakoa den, zer edo nortzuk agertzen diren, etab.).
- Astero argitaratuko dira *Asteleheneko Goiienkaria*-n.
- Urriaren 6ko *Asteleheneko Goiienkaria*-n aditzera emango dira irabazleen izenak.

Sariak:

- 1. saria: Olympus E-510 reflex** argazki kamera digitala Bergarako Kiñu argazki dendaren eskutik.
- 2. saria:** Astebukaera bateko egonaldia bi pertsonentzat, Arrasate Bidaiek-en eskutik.
- 3. saria:** bi pertsonarendako afari edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean. .



Babeslea:

 **kutxa**

Laguntzaileak:


ARRASATE BIDAIEK
BIDAIA-AGENTZIA ELKARTUA


GURE AMETSA
JATETXEA


kiñu
argazkilariak

OLYMPUS
Your Vision. Our Future



Atzo 20 kofradia batu ziren Bergaran eta kalejira egin zuten goizetik.

JOSETXO ARANTZABAL



Udaletxeko osoko bilkuren aretoa jendez lepo bete zen atzoko kofradiaren ekitaldian.

J.A.

Sei ohorezko kide berri ditu Bergarako Kofradiak

(23. orrialdetik dator)

tu zuen Mari Karmen Gallastegi ekitaldira etorri izana, amama izan berri delako.

Esan bezala, Bikuñak hitz

politik eskaini zizkien atzo omen-dutakoei. Herriko jai guztietan goizetik, lehen etxafuegoa jaurtitzen dutenetik gauera, txaragaren azken doinuak entzun arte lanean jarduten duten *Guti, Felisin* eta Beitia "mosketariak" bezalakoak direla esan zuen. "Edo urrunago joanez Hirutasun Santua". Mari Karmen Gallastegiren gainean zera adierazi zuen: "Gaz-

tetan neska alai, jatorra, gelditzen ez zen horietakoa zen eta berdin jarraitzen du. Pianorako zaletasuna zuen baina ederki menderatzen ditu ekonomiako *teklak*. 1991n Ekonomia sailburua izan zen, besteak beste, Ekonomia eta Ingurugiro Sari Nazionalarekin saritu zuten 2005ean eta gaur Ikerbasquen dabil. Gaur bi aldiz zoriondo beharrean gaude, esan bezala amama

izan delako asteburuan". Ramon Etxaniz aurkeztean, bera moduko txistulariak ez direla gertzen adierazi zuen kazetari bergararrak. "Boni Laskurainekin batera ikasi zuen eta 1952tik dabil Udal Txistularien Bandan, bokazioa eta debozioa uztartuz". Reyes Azkoitia deitu zuten jarraian eta Bikuñak herriko pilotaren alde Reyesek egindako lana goraiatu zuten: "Lehen emakume pilotaria izan da eta Bergara eta Arrasateko pilotalekueetan jokatu du, beti ere elkarte ongilean alde. Hilzorian zegoen pilota saila salbatzera emakume bat etorri behar izan eta eta 1990etik egindako lan bikaina hor dago". Udaletxean batutakoek txalo zaparrada luzea eskaini zieten omenduei.

ZIN-EGITEA

Aurkezpenak egin eta gero, zin-egitea etorri zen. Omen-dutakoei galdera honi eman zioten baiezta: *Zin egiten duzue Bergararen izen gozoa defendatu eta munduaren lau aldeetara zabaltzea; bai eta bertakoek zein kanpokoek eguneroko otordu guztietan erreilenoak eta tostoiak neurritz jan ditzaten ahaleginak egitea?*

Antonia Canseco kofradiako batzordeak bastoi batekin ukitu zituen omen-dutako guztiak eta tostoiak eta erreilenoak dastatzeari ekin zioten jarraian. Era berean, benetakotze-agiria eraman zuten etxera: domina (kalean gero harro-harro erakusten zutena) eta koadroa, etxeko toki kutunen baten jarri eta lagun gozoazalei erakusteko.



Bitxor Alberdi
(Erreileno eta Tostoiaren Kofradia)

Ekitaldi polita izan da gaurkoa; omen-dutak aukeratzeko orduan ez genuen zalantzarik izan. Gure kofradiak indarra hartu du azken urteotan eta urtean zehar 20 irteera egingo ditugu, Espainiara zein Frantziara. Han eta hemen egoten dira euren produktuak ezagutzera emateko kofradiak.



Reyes
Azkoitia

Niretako gauza berezia izan da horrelako izendapena jasotzea, ez nuen espero eta zalantzan egon nintzen onartu edo ez. Ohore handia da. Pilotak gauza asko eman dizkit eta aurrerantzean, gaur esan dudana bezala, saiaturko naiz kanpora noanean-eta, erreileno eta tostoiak eramaten.



Joxe Urretabizkaia
(Tolosako Babarruna)

Hiru lagun etorri gara gure kofradia ordezkatzera eta asko gozatzen ari gara, goizetik. Tostoiak eta Erreilenoak babarrune-kin osagarriak diren? Noski, bazkari edo afari eder bati amaiera borobila emateko postre gozo bat beti dator ondo... Jende gazte gehiagoa falta da kofradietan.

Hogei bat lagunek osatzen dute Bergarako Tostoiaren eta Erreilenoaren Kofradia

Hogei kofradia izan ziren ordezkaturak Tostoiaren eta Erreilenoaren IX. kapituluaren: Idiazabalgo Gazta, Txokolatearen Lagunak, Toledotik etorritako Gazta Mantxegoa, Beasaingo Odolosteak, Villabako Erreilenoak... Bergarako 20 bat lagunek osatzen dute eta San Martin jaietan ospatzen dute euren egun handia. Antonia Canseco da presidentea eta erreilenoak eta tostoiak eramanda hara eta hona ibiltzen dira urte osoan. Atzo Lasan 80 bat lagunek egin zuten bazkariko postrea asmatzea ez da zaila.

MUSIKA > BURNING ARAMAION

Burningekin eta nostalgiarekin hitzordua

Burning talde mitikoaren kontzertuan 150 lagun inguru batu ziren Aramaion; kantu ezagunenak eskaini zizkieten madrildarrek euren jarraitzaileei

E.MENDIBIL/I.BARANDIARAN > ARAMAIO
";Que hace un cantante como tú en un sitio como éste?" pentsa zeza-keen batek baino gehiagok egubakoitz gauean. Izan ere, Burning taldeak jo zuen Aramaioko plazan. Madrildarrak *dinosauro* batzuk ditugu dagoeneko: 1973etik dihardute errepedean eta euren azken lana aurkeztera etorri ziren Aramaiora. *Dulces dieciséis* da diskoaren izenburua eta Burnin-

gen kantu ezagunenak batzen ditu. Izan ere nostalgiak zeresan handia du Burningen kontzertuetan. Aramaiora joandako gehienek, batik bat, *Mueve tus caderas*, *Esto es un atraco*, *nena* edo taldearen eta *movida madrileña* delakoaren ikurretako bat den *¿Qué hace una chica como tú en un sitio como éste?* entzutearren joan ziren. Euriak jende gehiago batu izana oztopatu zuen baina hara joanda-

ko jarraitzaileak (150 lagun inguru, 40 urteren bueltan gehienak) berehala hasi ziren dantzari. Rockero veteranoen *gantxoa*.

BALADAK ETA ROCK ABESTIAK

Burning bezalako taldeek hasieratik ikusleak alde izaten dituzte. Abestu eta teklaturak jotzeaz gain, Johnny Cifuentesek narra-tzaile jardun zuen, taldearen ibil-bidea eta Pepe Risi zena gogoratuz. Ordu eta erdiz baladak eta abesti rockeroak tartekatuz zituzten; agerian geratu zen Rolling eta Velvet Underground izan direla haien maisuetako batzuk. Eta Burningekoak ikasle onak.



Burningeko Johnny Cifuentes ostiralean Aramaion.

JOSETXO ARANTZABAL

ASTE BUKAERA...

Jabier Azpiazurekin



Azkoagain futbol zeilari berriko inaugurazioan egon zen atzo Javier Azpiazu; besteak beste, federazioko ordezkariak eta udal ordezkariak egon ziren ekitaldian.

JOSETXO ARANTZABAL

"Aloñak jokatzeko dituen futbol partiduak guztietara joaten ahalegintzen naiz"

Jabier Azpiazu Aloña Mendi futbol saileko presidente da azken urteotan; eta lanbidez, komertziala

87 urte bete behar dituen Maritxu amarekin bizi da, eta etxeko lanak egiteaz arduratzen da

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Lanbidez komertziala da, baina gehienek Aloña Mendi futbol saileko presidente delako ezagutzen dute Jabier Azpiazu (Oñati, 1949). Atzo preferente mailako Aloñak jokatu zuen lehian egon zen Azkoagainen. Egun berezia izan zen: alde batetik, belar artifizialeko zelaiak inauguratu zituzten; eta beste alde batetik, liga hasi zutelako. "Egia esan gustura etorri naiz futbol zelaira, eta espero dut ikusleak ere pozik etorriko direla aurrerantzean".

Federatu mailan zazpi talde ditu Aloña Mendik denboraldi berriak, eta guztiek jokatu dituzte etxeko partiduak Azkoagainen. Hortaz, denbora asko egingo du presidentek futbol zelaietan. "Beti dago zerbait egiteko. Asteon adibidez, nesken futbol taldeko fitxekin ibili gara buru-belarri. Denboraldi hasierako lanak bukatuta, beste hainbat kontu izaten ditut esku artean: bidaiak, gastuak, bilerak...". Futbolak ordu asko kentzen dizkio aste bukaeratan. "Bakarrik hiru denboralditan izan nintzen futbolari, baina asko gustatzen zait. Aloñako futbol taldeek joka-

tzen duten ia partidu guztietara joaten naiz, etxetik kanpora edo Azkoagainera. Dena den, guztia ez da futbola, eta beste gauza batzuk egiteko denbora edukitzea gustatzen zait".

URTERO, 40.000 KILOMETRO

Futbola eta komertzial lanak uztartu ditu urte askotan Jabier Azpiazuk. Autoa hartu eta ordu eta kilometro asko egiten ditu

errepidean bezeroei bisitak egiten: "Urtero 40.000 kilometro egiten ditut batzuetan; baina, autoak ondo zainduta eta dagozkien azterketak eginda, autoak bizitza luzea izan dezake. Egun Peugeot 306 bat daukat, baina aurretik erabili nuen Peugeot 205 autoarekin 500.000 kilometro egin nituen".

Errepidean dagoenean, irratia piztuta eroaten du albisteak entzuteko. "Astegunetan telebis-

ta gutxi ikusten dut: aldika, informatiboak ikusten ditut. Hortaz, irratia entzuteko ohitura dut. Dena den, musika entzutea ere gustatzen zait, eta askotariko musika entzuten dut".

AMAREKIN BIZI DA

Abuztuan ez du komertzial lanik egin, baina Oñatin egon da. "Ez naiz inora joan. Egun bakarreko irteerak egin ditut, baina ama Maritxu zaintzen geratu naiz. 87 urte beteko ditu, eta osasunez ondo dagoen arren, harekin geratu naiz", esan digu. Amarekin bizi da Kale Zaharrean, eta etxeko lanak egitean egokitzen zaio eguneroko. "Ni naiz *etxeko andre* lanak egiten dituenak: etxe garbitu eta erosketak egiten ditut. Zapatuetan merkatura joatea atsegin dut, baina astean zehar ere egiten ditut erosketak".

ASTE BUKAERATAN, EPAILE

Aste bukaeratan duen beste hitzordu garrantzitsua herriko futbol txapelketan egiten duen epaile lana da. "Nire ametsetako bat epaile izatea izan da. Duela urte asko hasi nintzen beteranoren txapelketan".

"Futbol jokalarik bat aipatu barik, Oñatin futbola nola bizi den azpimarratuko nuke"

Soldadutzatik etorri zenean, 1974. urtean, hasi zen lagunekin futbolekin jokatzeko. "Orduan hasi ginen San Lorentzoko futbol zelaietan txapelketak antolatzen. 1975etik 1977ra, eta 1999tik aurrera noiz arte, futbol saileko presidente lanak egiten dihardut. Hortaz, gehienbat zuzendaritza batzordeko lanak egin ditut", dio. Urteotan jokalarik asko pasa dira Aloña Mendik izan dituen futbol taldeetatik, eta guztiekin gogoratzen dela esan digu: "Aloñak jokalarik oso onak eta karismatikoak izan ditut. Baina, ez nuke nahi batzuk bakarrik aipatu. Azpimarratuko nuke Oñatin futbola nola bizi dugun, bai futbolari izandakoak eta baita jarraitzaileak ere".

Presidente lanak egiten dituenetik gauza onak eta txarrak bizi izan dituela esan digu: "Onena, duda barik, hirugarren mailara igo gineneko denboraldia izan zen. Aldiz, oroitzen txarren artean jokalarien lesio larriak, eta gertuko lagunak heriotzak aipatuko nituzke".

gazte zerbitzuak

BEKAK

> **Lanbide hastapena.** Eusko Jaur-laritzak; Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Lanbide Hastapeneko Prestakuntza Praktikoaren Fasea (PPF) egiteagatik diru-laguntzak. Epea: urriaren 9a.

> **Unibertsitatez kanpoko ikasketak.** Eusko Jaur-laritzak; Hezkuntza, Unibertsitate, eta Ikerketa Saila. Unibertsitate mailakoak ez diren ikasleentzat Eusko Jaur-laritzaren 2008/2009 ikasturterako laguntzak. Epea: urriaren 15a.

> **Garraioak.** Garraioak. Eusko Jaur-laritzak; Garraio eta Obra Publikoetarako Saila. Eusko Jaur-laritzaren 2008/2009 ikasturterako laguntzak. Epea: urriaren 1a.

IKASTAROA

> **Begirale ikastaroa.** Urola Kostako Udal Elkarteko Euskara Zerbitzuak. Haurren eta gazteen astialdiko begirale ikastaroa Urola Kostan. Epea: irailaren 18a.

> **Neguko ikastaroak.** Donostia Kultura. Donostia Kulturako Neguko Ikastaroak 2008-2009. Eskaintza osoa: www.donostiakultura.com webgunea. Epea: irailaren 19a.

> **Astialdiko begirale.** Hezkide Eskola. Haurren eta gazteen astialdiko begirale izateko ikastaro trinkoa. Ikastaroak guztira 200 ordu izango ditu. Epea: urriaren 3a.

EKINTZAK

> **Musika.** Ebrovision. Ebrovision Jaialdia 2008. Irailaren 18, 19 eta 21ean Miranda de Ebron (Burgos) egingo den musika jaialdia.

LEHIAKETAK

> **Argazkilaritza.** Ostadar Mendi Taldea. Mendi eta Naturako Argazkien IV. Ostadar Lehiaketa. Epea: urriaren 25a.

> **"Gomendatzen dizut: merezi du".** Gipuzkoako Gazteentzako hainbat Informazio Bulego. Oporraldien kontakizunen, ostatuari buruzko gomendioen, hiri interesgarri buruzkoen, deskontuetarako agiriak erabiltzeko aholku, inguruko lehiaketa. Epea: irailaren 30a

LANA

> **Lan-poltsa.** Debanatura Ingurumen Heziketarako Eskola. Debanatura elkarrekin ingurumen alorreko jarduerak Deban egiteko lan-poltsa osatu nahi du. Epea: irailaren 22a.

> **Bi peoi.** Bergarako Udala. Bergarako Udaleko obra eta zerbitzuetako mantenurako bi peoi lanpostu bete nahi ditu. Epea: irailaren 24a.

> **Teknikaria.** Eusko Legebiltzarrak. Eusko Legebiltzarrean ekonomi gaitetako teknikariaren lanpostu bat betetzeko oposizio-lehiaketa. Epea: irailaren 22a.



ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:
Biteri etorbidea 3 • 943 77 00 65
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net

BERGARAKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:
Kultura etxea • 943 77 91 57
gzerbitzu@euskalnet.net

OÑATI GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:
Foruen plaza 4 • 943 71 82 57
gazteinformazioa@oinati.net

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Bergara. Etxebizitza salgai Bidekurutzeta kalean. Sukaldea, egongela, bi logela, bainugela eta trastelekua. Guztiz eraberritua. Prezio interesgarria. Oso aukera ona. Deitu ezazu telefono honetara: 618 44 38 44.

Oñati. 65 metro koadroko apartamentu berria salgai erdialdean. Garaje eta guzti. Deitu ezazu telefono honetara: 665 71 42 69.

Oñati. 90 metro koadroko etxebizitza erdigunean. Hiru logela eta bi bainugela. Garaje itxia eta ganbara. Guztiz jantzia. Oso eguzkitsua. Deitu ezazu telefono honetara: 680 44 95 55.

LuzSaint-Sauveurren etxebizitza salgai (Frantziako Pirinioak). 670 49 84 28 edo 649 03 52 95

Aretxabaleta. 72 metro koadroko etxebizitza erdialdean. Prezio negoziagarria. Saltzeko presarekin. 659 64 67 38

Oñati. 120 metro koadroko etxebizitza salgai erdialdean. Guztiz eraberritua. Trasteleku eta lursailarekin. Tasatutako prezioan. 650 60 12 14

102. EROSI

Bergara. Etxebizitza txikia erosiko nuke. Deitu ezazu telefono honetara: 680 35 96 30.

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Erdialdean bi logelako etxebizitza ematen da errentan. Prezio onean. Deitu ezazu telefono honetara: 605 75 54 52.

Arrasate. Hiru logelako etxebizitza ematen da errentan Zerrajeran. 950 euro hileko. Deitu ezazu telefono honetara: 646 81 03 35.

Donostia. Apartamentua ematen da errentan Gros auzoan. Logela, egongela, sukaldea eta komunak. Irailtik ekainera arte. Deitu ezazu telefono honetara: 615 70 22 68.

Eskoriatza. Etxebizitza ematen da errentan Eduardo Gorosarri plazan. Ikasle edo familia batenzat. Deitu ezazu telefono honetara: 699 28 99 06 edo

IRAGARKI SAILKATUAK

Eguen arratsalde arte (18:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu. Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

943 25 05 05 sailkatuak@goiena.com

GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

EUSKONTROL

Bergarako instalazioetarako behar da: Peoi lana betetzeko pertsona bat. Gidaibaimena beharrezkoa. 94 630 95 00 (Aintzane)

tara: 605 77 51 65 edo 943 71 48 65.

Oñati. 90 metro koadroko etxebizitza berria ematen da errentan erdigunean. Deitu ezazu telefono honetara: 615 73 29 83 edo 652 76 50 90.

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Etxebizitza behar dugu errentan. Bikote arduratsua gara. Deitu ezazu telefono honetara: 615 73 79 11.

Arrasate. Emakumea etxea errentan hartzeko prest. Deitu ezazu telefono honetara: 659 35 09 30.

Bergara. Etxebizitza hartuko nuke errentan. Deitu ezazu telefono honetara: 608 57 37 68.

Eskoriatza edo **Arrasaten** etxea errentan hartuko nuke. Deitu ezazu telefono honetara: 635 12 87 82.

105. ETXEA OSATU

Arrasate. Bi logela errentan daude Arrasateko erdigunean. Deitu ezazu telefono honetara: 680 30 24 64.

Arrasate. Etxea osatzeko pertsona bat behar dugu Arrasateko erdialdean, unibertsitateatik 5 minutura. Sukaldea guztiz hornituta, logelak eta sala handiak, bi bainugela, pisu eguzkitsua, wifi & #8230; Eguzkitsua. (Raul eta Oier). Deitu ezazu telefono honetara: 699 28 99 06 edo

678 76 28 22.

Arrasate. Mutil batek logela hartuko luke errentan. Deitu ezazu telefono honetara: 645 72 25 24.

Bi neska ikasle behar dira etxea osatzeko Aretxabaletako herrian. Hiru logela, sukaldea, despentsa, egongela, bi komun eta terraza. Autobus geltokitik gertu aurkitzen da. Garazigatik galdetu ezazue. Deitu ezazu telefono honetara: 618 92 40 68 edo 646 94 19 81.

2/ GARAJEAK

201. SALDU

Arrasate. Garaje itxia salgai Zigarrola auzoan. Deitu ezazu telefono honetara: 626 70 61 79.

202. EROSI

Eskoriatza. Garaje itxia erosiko nuke, ahal izanez gero erdigunean. Deitu ezazu telefono honetara: 690 04 40 53.

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

Antzuola. Emakumea behar da haurra zaintzeko. Deitu ezazu telefono hauetara: 677 98 54 46 edo 943 76 64 98.

BERGARA

Agorrosin eta Avenida tabernek sukaldari eta zerbitzari euskaldunak behar dituzte. 943 77 70 30

ARETXABALETA

Sukaldari laguntzaile behar da. 677 69 27 85

ARRASATE

Pertsona bat behar da lau orduz dendan lan egiteko. 80 posta kutxa Arrasate.

Aramaio lagun talde batek aerobic irakaslea behar du. Deitu ezazu telefono honetara: 665 72 62 83.

Arrasate. Pertsona nagusi bat zaindu eta etxeko lanak egiteko emakumezkoa behar da. Deitu ezazu telefono honetara: 619 58 98 50.

402. ESKAERA

Arrasate edo **Aretxabaleta.** Edozein motatako ordenagailuak konpondu eta sistema eragileak instalatzen ditut. Aaron. 659 58 67 69.

Arrasate-Bergara. Emakumea gertu garbiketa lanak egiteko edo pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko. 671 18 50 83.

Arrasate. Emakume euskalduna gertu edozein lan egiteko. 659 82 75 18.

Arrasate. Emakume euskalduna gertu umeak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko orduka. 943 08 27 05 edo 685 72 03 16.

Arrasate. Emakumea gertu umeak edo nagusiak zaintzeko. 672 25 92 18.

Arrasate. Igeltsero lanak egingo nituzke. Rolando. 679 23 10 44.

Arrasate. Emakume euskalduna gertu umeak zaintzeko. Esperientziaduna. 667 87 99 16.

Bergara edo **Antzuolan** umeak zainduko nituzke, 15:00etatik 19:00etara. 696 84 19 51.

Bergara eta Antzuola. Mutil arduratsua sukaldari laguntzaile lanak egin edo pertsona nagusiak zaintzeko gertu. 685 42 72 80.

Bergara. 28 urteko gizona asteburuetan lan egiteko gertu. 659 02 27 12.

Bergara. Emakume gaztea pertsona adinekoak zaindu edo etxeko lanak egiteko gertu. Paperekin eta esperientziarekin. 686 99 59 41.

Bergara. Esperientziadun pertsona adinekoak zaindu edo etxeko lanak egiteko gertu. 650 17 74 87.

Debagoiena. 28 urteko mutila edozein lan egiteko gertu. Hiru urte daruma Bergaran bizi izaten. Christian. 662 08 22 03.

Debagoiena. 37 urteko mutil euskalduna asteburuetan edozein lan egiteko gertu. 686 99 23 94.

Debagoiena. Arrasateko 37 urteko mutila asteburu eta oporretan edozein lan egiteko prest. 686 99 23 94.

Debagoiena. Emakumea etxeko garbiketarako gertu. 610 82 02 17.

Debagoiena. Esperientziadun mutila tabernan lan egiteko gertu. 628 00 09 06.

Debagoiena. Esperientziadun neska gertu sukalde laguntzaile lanetarako: pintxoak, ogitarteak, plater konbinatuak, menuak... 667 98 84 47.

Debagoiena. Gazte boliviarrak nekazaritza lanetarako gertu: behiak edo zaldiak zaindu eta abar. 663 60 51 64.

Debagoiena. Gaztea gertu garbiketa lanak egiteko eta umeak eta pertsona nagusiak orduka zaintzeko. 699 63 12 02.

Debagoiena. Mutil arduratsua edozein lan egiteko gertu. Aaron. 659 58 67 69.

Debagoiena. Mutila gertu erakuntzan lan egiteko edo pertsona nagusiak zaintzeko. 699 63 12 02.

Debagoiena. Neska boliviarrak gertu garbiketa lanak egin edo ume zein nagusiak zaintzeko. Orduka, egun osoz edo bertan lo egiteko gertu. 636 91 93 81.

Debagoiena. Neska eskaintzen da tabernan asteburuetan lan egiteko. 644 49 61 52.

Debagoiena. Neska gertu garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko. Egunez, gauez zein orduka lan egingo nuke. Deitu

ezazu telefono honetara: 686 42 06 42.

Debagoiena. Neska gertu garbikasun lanak egin edo nagusiak zaintzeko. Orduka edo egun osoz. 610 82 02 17.

5/ IRAKASKUNTZA

502. EMAN

Arrasate. Goi mailako ingeniari industrialak eskola partikularrak ematen ditu. Maila guztiak. Matematika, fisika, marrazketa, teknologia, kimika, elektrizitatea, aljebra... Arreta pertsonalizatua. 630 71 35 83.

Bergara. Ingelesean lizentziadunak ingeleseko eskolak ematen ditu. 616 12 56 29.

Bergara. Ingelesko eskolak ematen ditu. Maila guztiak. 618 91 32 89.

Ingeles komunikatibo eskolak ematen ditu. Maila guztiak. Eskola laguntza eta azterketak. Deitu 14:00etatik aurrera. 610 97 49 68.

Ingelesa. Arrasaten eskola partikularrak ematen ditu. Maila guztiak. Deitu ezazu telefono honetara: 943 77 16 90.

503. BESTELAKOAK

Aretxabaleta. Frantsesez bergara-laguna gertu. 629 85 66 35.

8/ DENETARIK

801. SALDU

Basalurra salgai Urkulu, Bolibar, Osintxu eta Antzuolan. 678 72 75 72.

Baxu amplifikagailua salgai. Peavy 6 seriea. 250 watt. Burua eta bozgorailua. 610 85 32 04.

Bi lursail salgai Leintz Gatzaigan. Bata. Arrate-Behean, 126 metro koadrokoa. Bestean, Arrate-Bueltan, 1.502 metro koadrokoa. 615 74 13 47.

Biola. 38 zentimetrokoa. Arku eta fundarekin. 550 euro. 944 12 46 28.

Biola. 39 zentimetrokoa. Fundarekin. 450 euro. 944 12 46 28.

Brain Training berri-berria salgai. Nintendo DSrako. 617 13 17 51.

Flex Multielastic koltxoia salgai. 150x180 cm. Egoera onean. 200 euro. 696 48 12 99.

Ordenagailua. Bigarren eskuko ordenagailua salgai. Hiru urte ditu. 943 08 18 13.

806. GALDU

Aretxabaleta. Plazara markako poltsa galdu dut. Laranja kolorekoa da. Barruan Nintendo DS dauka. Aurkitu baduzue, deitu ezazue telefono honetara: 696 46 03 93.

Euskal artzai txakurra. Atzo, domeka, Gorbeako euskal artzai txakurra galdu genuen Kurtzebarrin, Aretxabaletan. Marroigorri kolorekoa da eta Lur du izena. Txipa dauka lepoan. Haren berri izanez gero, deitu mesede. 685 72 11 67. Aintzane.

Oñatin umeak lo egiteko zapia galdu nuen irail hasieran, Errekaldetik kiroldegirako bidean. Panpina baten burua dauka. Arrosa, berdea eta morea da. Deitu ezazu telefono honetara: 650 27 05 78.

9/ HARREMANAK

904. BESTELAKOAK

Leioara joan-etorria. Leioara joan beharra dut ia egunero. 09:00etarako joan eta 14:00etan itzuli. Beste lagun batzuekin autoa txandaka eraman edo gastuak konpartitu nahiko nituzke. 657 79 07 39.

ETXE AGENTZIAK

Jar ezazu hemen zure publizitatea
943 25 05 05 publi@goiena.com



INMOBILIARIA

Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokokrosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

Bergara:

- Zabalotegi 80 m². Eguzkitsua. Bista onak.
- Simon Arrieta 80 m². Eguzkitsua. Ondo. Berritua.
- Zubietta 80 m². Berritua. Ganbarekin.
- Elusu baserria. Berritua. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 60 m². Berritua. Gazteentzat.
- Ibargarai 74 m². Ondo. Garajea aukeran.
- Zubiaurre 67 m². Berritua. Eguzkitsua.
- Matxiategi 61 m². Prezio ona. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 50 m². Oso ondo.
- Barrenkale 82 m². Berritua.
- San Lorenzo. Berritua. Prezio ona.
- Bidekurutzeta 103 m². Duplexa. Oso ondo.
- Zubiaurre 52 m². Gazteentzat.
- Azkarruntz 69 m². Prezio ona.
- San Pedro 65 m². Ganbarekin.
- Artekale 62 m². Berritua.
- Zubiaurre 58 m². Eguzkitsua.
- Krus Gallastegi 65 m². Eguzkitsua.
- Zubiaurre 52 m². Prezio ona.
- Masterreka 92 m². Oso ondo.
- Osintxu 62 m². Prezio ona.

Etxebizitza berrien erakuntza San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.

- San Lorentzon etxe berriak

Antzuola:

- Buzinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa Etxe onak.
- Etxe berriak 178 m². Duplexak eta adosatuak.

Elgeta:

- San Roke 72 m². Berritua.
- San Roke 80 m². 80 m²-ko ganbara eta lokalarekin.
- Salbador 90 m². Berritua.

Oñati:

- Kale Zaharra. 62 m². Terrazarekin. Ortua.
- Lezesarri. 75 m². Eguzkitsua. Erdi berritua.
- Moyua. 75 m². Oso aukera ona.



DEBA
GARAIA

INMOBILIARIA
Telefono Aranzadi 2

T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA

- Artekale, 89 m², ondo.
- Arrizuri, 97 m², garajearekin.
- Matxiategi, 65 m², berritua eta aukera ona.
- Ibargarai, 80 m², oso ondo.
- Artekale, 70 m², oso ondo.
- Bolu, 103 m², oso eguzkitsua.
- Zubietta 65 m², ondo, hortuarekin.
- Matxiategi, 65 m², ondo.
- Aranerreka, 87 m², oso ondo.
- Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
- Sanantonabat, 70 m², oso ondo.
- San Lorenzo, 81 m², eraikuntza berria.
- Martoko, 87 m², ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 m², ondo.
- Ibargarai, 80 m² oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 m² oso ondo.
- Urdangarin pasealekua, 132 m², berritzeko.
- Irizar Pasealekua 89 m², ia berria.
- Eloorregi 70 m², terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Simon Arrieta 80 m², berritua, oso ondo.
- Matxiategi, 73 m², berritzeko.
- Simon Arrieta, 57 m², terrazarekin.
- Zurradero, 81 m², oso ondo.
- Simon Arrieta, 80 m², berritua. Oso ondo.
- Zubietta, 125 m², terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 m², berritua. Oso eguzkitsua.

astea GOITBn

Astelehena, 15



> **Albistegia, Larraitz Zeberiorekin 19:45**

Debagoieneko gora-beheren berri izan gura baduzue, Goiena Telebistan duzue horretarako aukera. Egunero, 19:45ean, *berriak* saioa GOITBn.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak: Muka muka.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Euskal Artzainak Ameriketara.
- 14:15 Eltze beroa.
- 14:45 Berriak.
- 15:15 Erreportajea.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Ikuskizuna.
- 16:15 Eltze beroa.
- 16:45 Erreportajea.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Ilunpean.
- 18:15 Marrazkiak: Muka Muka.
- 18:45 Berriak.
- 19:15 Musikantoi.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazkiak: Muka Muka.
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Eltze beroa.
- 21:45 Euskal Artzainak Ameriketara.
- 22:15 Erreportajea.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Ilunpena.
- 23:45 Musikantoi.
- 00:15 Emisio amaiera.

Martitzena, 16



> **Marrazki bizidunak egunero Goiena Telebistan 13:20**

Etxeko txikiendako eskaintza zabala dauka Goiena Telebista. 13:20an hasten da lehena eta azkena 20:15ean eskaintzen dute.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak: Futbola.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Euskal Artzainak Ameriketara.
- 14:15 Eltze beroa.
- 14:45 Berriak.
- 15:15 Erreportajea.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Ikuskizuna.
- 16:15 Eltze beroa.
- 16:45 Berriak.
- 17:15 Berbaire.
- 18:15 Marrazkiak: Futbola.
- 18:45 Berriak.
- 19:15 Musikantoi.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazkiak: Futbola.
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Eltze beroa.
- 21:45 Euskal Artzainak Ameriketara.
- 22:15 Erreportajea.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Ilunpena.
- 23:45 Musikantoi.
- 00:15 Emisio amaiera.

Eguaztena, 17



> **Erreilenoak eta tostoia, gaur erreportajea 21:15**

Eguaztenetan izango dira hemendik aurrera Julen Iriondok ekoiztutako *erreportaje* saioak. Bergarako erreileno eta tostoien gainekoa da lehena.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak: Muka muka.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Euskal Artzainak Ameriketara.
- 14:15 Eltze beroa.
- 14:45 Berriak.
- 15:15 Erreportajea.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Ikuskizuna.
- 16:15 Eltze beroa.
- 16:45 Berriak.
- 17:15 Euskal Artzainak Ameriketara.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Ilunpean.
- 18:15 Marrazkiak: Muka Muka.
- 18:45 Berriak.
- 19:15 Marrazkiak: Muka Muka.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Zaharrak berri.
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Erreportajea.
- 22:00 Euskal Artzainak Ameriketara.
- 22:30 Erreportajea.
- 23:00 Berriak.
- 23:30 Ilunpena.
- 00:00 Musikantoi.
- 00:30 Emisio amaiera.

Eguena, 18



> **'Musikantoi' saioan, Barricada talde nafarra 22:47**

Aretxabaletako Andramaixetan, Barricada taldeak eskaini zuen kontzertuko hainbat abesti eskainiko dituzte *Musikantoi* saioan.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Zaharrak berri.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Euskal Artzainak Ameriketara.
- 14:15 Eltze beroa.
- 14:45 Berriak.
- 15:15 Erreportajea.
- 16:00 Gaurkoak.
- 16:02 Ikuskizuna.
- 16:15 Eltze beroa.
- 16:45 Berriak.
- 17:15 Euskal Artzainak Ameriketara.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Ilunpean.
- 18:15 Marrazkiak: Futbola.
- 18:45 Berriak.
- 19:15 Musikantoi.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazkiak: Futbola.
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Eltze beroa.
- 21:45 Berbaire.
- 22:45 Gaurkoak.
- 22:47 Musikantoi.
- 23:15 Ilunpean.
- 23:45 Erreportajea.
- 00:15 Emisio amaiera.

Egubakoitza, 19



> **Etxeko txikitxoak zoriontzeko aukera Goiena Telebistan 21:47**

12 urte bitartera arteko umeak zorion ditzakezue Goiena Telebistan. *www.goiena.net* webgunean ipini ditzakezue horretarako zorion agurrak.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:15 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Berbaire.
- 14:45 Berriak.
- 15:15 Sustraiez blai.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Erreportajea.
- 16:15 Eltze beroa.
- 16:45 Berriak.
- 17:15 Ilunpean.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Erreportajea.
- 18:45 Berriak.
- 19:15 Musikantoi.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazkiak.
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Eltze Beroa.
- 21:45 Erreportajea.
- 22:15 Erreportajea.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Ilunpean.
- 23:45 Musikantoi.
- 00:15 Emisio amaiera.

arrasate irrati

FM 107.7

> **Kubako doinuak entzuzera joateko gonbidapena 10:30**

Kubako doinuak gustuko dituzuenok, aukera ederra duzue egubakoitzean 3.60 aretoan. Vaniti Brown konpositorearen kontzertua ikustera joateko, sarrerak zozketatuko ditu irratiak, *irratia* @goiena.com-en.

Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratua. Eguraldi kontuak Bixente Pagoagaren eskutik; hirugarren adinekoen gainekoak (dieta, tertulia...) *Zaharrak* berria saioan, eta sexologia kontuak, besteak beste.

Domeka

10:00 Asteko gainbegiratua.

Astelehenetik egubakoitzera

10:00-12:00 Igo Autobusera
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Ilunpean
Teknoberriak
Igo Euriborrera!
Kantaka
Zaharrak Berri
Astearren erreposoa
Zozketak
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (irratia@goiena.com))
11:55 Arrasateko albisteak, labur.
12:05 Euskadi Irratiko albistegia
12:10 Izarren ordua: abesti ezagunak
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Igo Autobusera! (errep.)
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 albistegi laburra.

gertutik



Jasone Zabala
Kazetaria

"Kirol gaiak jorrazteko ikasi egin nuen kazetaritza"

MIREN ARREGI > BERGARA

Goienako langilea da Jasone Zabala, duela urte betetik. Kazetaritza ikasketak egin aurretik, maisu-maistra ikasketak egin zituen baina kirolarekiko duen zaletasunak bultzatu zuen kazetaritzako ikasketak egitera. Hain zuzen ere, arlo hori jorraztea gustatuko litzaikeela aitortu digu.

Kirol zalea zara erabat.

Asko gustatzen zait kirola. Irakaskuntzako ikasketak ere heziketa fisikoaren alorrean burutu nituen. Ikasketak amaitu nituenean, ez nuen neurere burua irakasle moduan ikusten eta kazetaritzari ekin nion, kirol kazetaritza jorrazteko asmoz.

Kirol kontuak jorraztea gustatuko litzazuke orduan?

Egia esan gustatuko litzaidake kirol kontuetaz idaztea, baina oso urduria naiz eta ez dakit urduritasunak ez ninduen momentua iristean gaudituko. Dena den, bai, gustura egingo nukeen lan hori. Hala ere, beste gai batzuk jorrazten ditut lanean eta gustura ari naiz, azken finean, asko ikasten da eta kirolez aparteko kontuekin.

Eta, kirol egiten duzu?

Hamar urte eman nituen Bergarako saskibaloitza taldean jokatzeko, baina utzi egin nuen. Orain badut jokatzeko gogo baina zaila da talde bat sortzea. Pentsa, zer nolako gogo daukadan saskibaloian egiteko, orain dela gutxi bali bat erosi nuela. Mendi punta batera igotzeko eskatuko balidate han partidu bat jokatzeko, bi bider pentsatu gabe joango nintzateke.

Zein jokalarirekin jokatuko zenuke saskibaloitza partidu bat?

Elmer Bennet amerikarrarekin. Baskonia taldeko jokalaria izan zen eta oso ongi zuzentzen zuen taldea. Oso jokalaria trebea da, ondo jokatzen dakiena eta talde jokalaria oso ona. Indar handia ematen zion taldeari.

Telebistan denetik ikusten duzu ala kirola bakarrik?

Kirola asko ikusten dut. Telesailen eta halakoekin gertatzen dena da, ez dela ezer finkoa. Audientziaren eta diruaren arabera saioak aldatzen dira eta ez dago ezer jarraipen bat eramaten uzten duenik.

asteko hitzorduak

Zinema



OÑATI

> **'Hancock' filma ikusteko azken eguna da gaur, astelehena**

Oñatiko zinema ikasturteko lehen filma *Hancock* da, Will Smith protagonista duena, zorte txarreko super heroiarena egiten. Gaur, astelehena, da hura ikusteko azken eguna, kultura etxean, 19:30ean.

Ate irekiak




ARETXABALETA

> **Gaztelekua barrutik ezagutzeko aukera izango da bi egunetan**

Atxagaztek, Aretxabaletako gazteleku berriak, atea irekiko dituzte. Horren aurretik, baina, ate ireki jardunaldia izango dute etzi, eguaztena, eta hilaren 18an, eguena. Hezitzaileak hantxe izango dira.

Erakusketa



ARRASATE

> **'Islama, guztion ondarea' delako erakusketa dago Kulturaten**

Islamaren zibilizazioak egin duen ekarpena ezagutzeko aukera dago Islama, guztion ondarea delako erakusketan, Kulturaten, martitzenetik domekara, 17:30etik 20:30era. Elkarheitzaren taldeak antolatuta du.

kuxkuxeroa



Mireia Bikuña

Musika, futbola eta eguraldia

Hasi ditugula jaiak Oñatin! Atzo Herri Egune-ko haurrak izan ziren protagonistak herriko kalean. Baina, atzo ere Gipuzkoako basoko arku-tiro txapelketa jokatu zuten. Atzo goizean lankide batek esan zidan moduan, irailak aste bukaera gutxi ditu oñatiarrondako. Ekitaldi guztiak sartzeko aste bukaera gehiago behar ditugu. Oraingo aste bukaeran ospakizun gehiago; besteak beste, haur danborrada.

Preferentetik beherako futbol ligak ere aste bukaeran hasi dituzte. Oñatin eta Ber-

"Zenbat aldiz ez ote digute galdetu, que hace una chica como tu en un sitio como este?"

garan futbol zelai berriak estreinatu dituzte. Azkoagainen egon ziren Euskal Herriko Futbol Federazioko presidentek **Iñaki Dobaran**, Gipuzkoako Federazioko presidentek **Juan Luis Larrea**, eta Oñatiko alkate **Lurdes Idoiaga**, besteak beste.

Aramaioarrendako egun handia izan zen egubakoitza, **Burning** taldeak kontzertua egin zuen-eta. Han egon zen Goienako lankide **Iker Barandiaran**. Entzule asko hurbildu zen Aramaiora talde mitikoaren kantak entzuterako. Zenbat aldiz ez ote digu norbaitek galdetu, *qué hace una chica como tú en un sitio como éste?*. Ba, kanta hori **Burning** taldearena da. Musika entzun zuten bai, baina busti ere egin ziren euri zaparrada bota zuen-eta.

((112))
SOS DEIAK

asteburuko albuma



Jazzaukera taldearen musika emanaldia. *Jazzaukera* talde gasteiztarrek egubakoitzean jo zuen Aramaioko Kultur Etxean udalak eta Caja Vitalek antolatutako ekitaldian. Zazpi kidez osatutako talde honek bateria, kontrabaxua naiz saxofoien doinuaz baliatu zen ordu eta erdiko kontzertua emateko. Adin guztietako 50 entzuleak oso gustura irten ziren kontzertutik. Ekitaldi hau ez da Caja Vitalek eta Udalak elkarlanean antolatu duten ekimen bakarra: Gasteizko koroa eta balet talde bat ere eraman izan dituzte Aramaiora.



Katakrak tailerra. Bartzelonako *Katakrak* taldeak birziklatutako materialekin eginiko jolasak ekarri zituen Bergarara. Domeka osoan zehar umeek "errespetua eta laguntasuna ikasi zuten", taldearen esanetan.



Gipuzkoako Basoko Arku Tiraketa Txapelketa. Domeka goizean ospatu zen Arku Tiraketa Txapelketa Oñatin. 67 arkularik hartu zuten parte kategoria ezberdinetan: Arku birkurbatuko irabazlea Jose Migel Calvo izan zen. Arku zuzenean Olatz Xenua (emakumezkoetan) eta Inazio Nogera (gizonezkoetan). Mekanikoa Pedro Barrenetxeak lortu zuen garaipena; librean Martin Martinezek eta klasikoan David Fernandezek.



Haurren eguna. Atzo, 9:00etatik 18:30ak arte egitarau zabala izan zuten Oñatiko haurrek. Kalejira, dantzak, buruhandiak eta erraldoiak egun osoan zehar. Arratsaldeko 17:00etan alardea ospatu zen plazan. Txankarranko Banako Jorrai dantza, Zinta dantza edo Arku dantza ikusi ahal izan ziren; Plazan dantzan ibili ziren guztiak eta hainbat talde eszenatokira ere igo ziren.

zorion agurrak



ARRASATE
Pako Barkero
Abuztuaren 31n urtebetetzea. Zorionak aitatxo! Etxeko guztiak eta batez ere Elena, Maren eta Leireren partez.



ARRASATE
Maren Barkero
Abuztuaren 25ean urtebetetzea. Zorionak potxola! Etxekoak eta batez ere Leire, Aner eta Txikiren partez. Patxo handi bat.



ARRASATE
Nahia Axpe Agirrebeña
Abuztuaren 4an. Bere ahizpa Maike, Lia eta famili guztiaren partez zorionak eta patxo handi pila bat.



BERGARA
Unax Lazkano Palacios
Irailaren 9an. Zorionak Unax txikitxoari eta baita amama Maria Jesusi ere, marrubizko patxo goxo goxua familia guztiaren partez bikote!



ONATI
Ainhoa Azpiazu
Irailaren 9an. Zorionak eta urte askotarako! Ondo pasau zeure egunian eta laztan handi bat etxeko partetik.



BERGARA
Ander Gonzalez
Irailaren 12an. Zorionak eta patxo handi bat familiako partetik!



BERGARA
Itziar Ibarra Udabe
Irailaren 13an. Zorionak ama zure urtebetetzean etxeko guztion partetik, batez ere aita, Ane, Jasone eta amamaren partez. Patxo bat eta ondo pasa eguna.



ARETXABALETA
Naroa Iturbe Moreno
Irailaren 13an. Zorionak pottola! Patxo handi bat familia eta laguntxo partetik.



ARRASATE
Irene Goiarrola Ezkurra
Irailaren 13an, gure pinpilipauxak 3 urte bete ditu, patxo goxogoxoekin zorionak emango doutsau eta belarriak ere gorri gorri jarriko dizkiogu. Zenbat maite zaitugun Irene! Zorionak maitia familia osoaren partez.



ARRASATE
Imanol Loiti Montero
Irailaren 15ean. Zorionak txapeldun! Eta milaka patxo zure ikastolako lagun, familiaren eta batez ere Oihan, Iraia eta Elenen partez.




ARRASATE
Oxel Arriaran Lagunilla
Irailaren 16an, 5 urte. Zorionak, politxo! Patxo handi bat Txomin, amatxo eta aitatxoren partetik.



ARRASATE
Irene Dolara Balanzategi
Irailaren 16an. Zorionak potxola etxeko guztien partez. Ondo pasa!



ARRASATE
Haizea Arenaza
Irailaren 16an 2 urte. Zorionak eta patxo pila bat etxeko partetik, bereziki lkerren partetik.



ONATI
Magali Perosterena Egoskozabal
Irailaren 17an, Zorionak etxeko gure "sorgintxuari" eta patxo haaaa-andi bat. Tio Aitor, amama Maribi, Unai, Aitor, Tia Argitxu eta Tio Jose Mari.



ARRASATE
Bego Arregi
Irailaren 17an, zorionak Bego! Ondo-ondo pasa zure eguna!!! Patxito asko, MIKeko sorginak!!



ARETXABALETA
Nerea Garai Azkarate
Irailaren 17an. Zorionak eta patxo handi bat Asier, Andoni eta familiako guztien partetik!



ARRASATE
Unax Aranzabal Vitoria
Irailaren 18an. Zorionak eta patxo handi bat zure anaia Jon, amatxo eta aitatxoren partetik. Ondo pasa eguna laguntxoekin.




ARETXABALETA
Miren Ereaña
Irailaren 19an. Zorionak Miren familiara guztien partez! Ea merendolara gonbidatzen gaituzun! Patxo asko.




ARRASATE
Maddi Etxagibel Ruidiaz
Irailaren 22an halako irrifarra ikusita gero eguzkia segurur. Patxo handi bat senitate guztien partetik.



BERGARA
Joane Lizarralde
Irailaren 16an, 7 urte. Zorionak eta patxo handi bat Ugarrizako familiaren partetik.



BERGARA
Julen Etxebarri
Irailaren 20an, 7 urte. Zorionak eta patxo handi bat familiaren partetik.



BERGARA
Oihane Bengoa Etxebarriarteun
Irailaren 15ean, 4 urte. Zorionak eta patxo handi bat etxeko guztion partetik.



DEBAGOIENA
Malen Salazar Guridi
Irailaren 18an urtebete beteko du. Zorionak gure printzetaxoari, aitatxo, amatxo eta etxeko partez! Patxo handi bat.



ARRASATE
Cecilio Berezibar
Irailaren 18an urtebetetzea. Zorionak aita!! Pablo, Malen, Martin eta Naroan partez.

jaiotakoa



Aratz Etxebarria Elkoro
Bergara > 2,340 kilo. Irailaren 6an. Gurasoak: Kristina (Bergara) eta Unai (Bergara). Argazkian, Aratz jaioberria.



Enaitz Otxandiano Roma
Arrasate > 2,800 kilo. Irailaren 9an. Gurasoak: Marian (Aretxabaleta) eta Mikel (Arrasate). Argazkian, Enaitz jaioberria, amarekin.



Lide eta Nora Orobengoa Elortza
Aretxabaleta > 2,780 eta 2,930 kilo. Irailaren 6an. Gurasoak: Enea (Aretxabaleta) eta Mikel (Aretxabaleta). Argazkian, Lide eta Nora gurasoekin.



Xixili Basabe Corral
Elorrio > 3,250 kilo. Irailaren 8an. Gurasoak: Bea (Arrasate) eta Unai (Elorrio). Argazkian, Xixili jaioberria, amarekin.

BABESLEA



IKUSI MAKUSI



Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32

Pedro Sologaitoa 'Laso' > Argazkilari ohia

"Argazkiekin aritzeko Zerrajera utzi genuen"

IKER BARANDIARAN > ARRASATE

Pedro Sologaitoa eta Joxe Mari Lasagabaster *Bentxes* izan dira Arrasateko argazkilari ezagunenak. Bien abizenekin Laso negozioa jarri zuten, eta Arrasateko eta ibarreko beste herri batzuetako jende ugari argazkiak egin dizkiote.

Noiz eta zelan hasi zinen argazkiak egiten?

Mutikotan lagun koadrila bat domekero mendira joaten ginen, eta halako baten Portaloiko lurrindegia zeukan Robustiano-ri argazki makina txiki bat erosi nion. Makina horrekin hasi nintzen mendian argazkiak egiten, eta zaletu egin nintzen.

Eta, poliki-poliki, zaletasuna ogibide bihurtzen hasi zen?

Bai. Hasieran mendian koadrilakoei eta lagunei talde argazkiak egiten nitzkien eta gero errebelatua ordaintzeko dirua ematen zidaten. Tabakorako-eta diru pixka bat irabazten nuen. Gero, gainera, nire kontu errebelatzen ikasi nuen. Konturatu orduko, ezaguna egiten hasi nintzen eta eskaera asko nituen.

Zaila izan zen Zerrajerako lana utzi eta argazkilari aritzeko erabakia hartzea?


Ez horrenbeste. Joxe Mari Lasagabaster *Bentxes*-ek eta biok argi geneukan argazkilaritzarekin Zerrajeran baino diru gehiago irabaziko genuela. Eta *Bentxes*-en familiak herriko plazan zeukan lokal baten jarri genuen negozioa. Gogoan daukat orduko parrokoari gure asmoen berri eman geniola, eta hark onespena eman zigula. Sasoi hartan Zerrajera uztea ez zen ohikoena, badakizu!

Eta arrakasta handia izan zenuten...

Egia esanda, bai. Ia herri osoa pasa zen geneukan estudiantik: jaunartzeko argazkiak, bestelakoak... Horrez gain, ni neu lehengo motorrean eta gero auto txiki baten Arrasateko, Aramaio-ko, Aretxabaletako eta Eskoria-tzako auzo guztietan egona naiz. Orduan familia guztietan zeuden moja edo fraide joandakoak eta haiei bidaltzeko argazkiak egitea oso ohikoa zen. Gerora, *Bentxes* nekatu zen eta neuk jarraitu nuen erretiratu arte.

Argazkilari moduan oso ezaguna zaren arren, futbolearen ere oso ondo ibili zinen...

Tira. 11 urte egin nituen Mondra taldean kapitain eta Realean ere urtebete egin nuen. Gogoan daukat AEBetatik Arrasatera etorritako Azkoaga entrenatzaileak Mondran ezkerreko hankarekin jokatzera behartu ninduela, eta azkenean bi hankekin ondo jokatzeko gai izan nintzela. Realean ez nuen arrakasta handirik izan, baina Mondran partidu oso onak egin nituen.



BILDUMA Argazki ugari ditu eginda Sologaitoa Laso-k.

IKER BARANDIARAN

TEST-A

Herria: Arrasate. **Adina:** 88 urte. **Ikasketak:** Oinarrizko ikasketak eta argazkilaritza bere kabuz. **Zaletasunak:** Iraganean futbola eta bidaiatzea. Gaur egun irratia entzutea. **Non egin zenuen soldadutza?** Burgosen. Gerra bukatu aurreko azkeneko belaualdikoak izan ginen, baina ez ginen frontera joan. Han ere argazkiak egiten jakiteak asko lagundu zidan. **Realazelan ikusten duzu?** Nik jokatu nuenean ere hala zegoen.

ai, ene!



Kuxin-zorroa

Ordenagailu eramangarri-arendako zorro biguna. Ordenagailua edonora eramaten dutenendako asmakizun bikaina. Azterketa garaian egun osoa liburutegian ematen dutenek lo-kuluxka bat egiteko aukera izango dute.

<http://www.nopuedocreeer.com>

biharamuna

Iñigo Biain


Ni eroapenez itzuli naiz

Ikasturte berria hasi da, beraz, udako oporrak joan zaizkigu. Batzuk depresioak jota egongo zarete, eta beste batzuk eroapenez itzuliko zineten zeuen eginbeharretara... Ni neu ere, mantso hasi naiz, opor-gorputza langile-gorputz bilakatzekeo prozesua ahalik eta hobekien eramateko. Pentsa, atzo goizean Danbakak atara duen DVDA ikusten ari nintzen, duela bi urteko emanaldiak gogoratuz, ASTELEHENEKO GOIENKARIATIK deitu zidanean: "Iñigo, gogoratzen al zara Biharamuna zuri tokatzen zaizula?". Kakazaharra! Ahaztua neukan erabat! Eduren ahotsak bueltatu ninduen



berriz langileen mundura, Joku Olinpikoak eta euskara usaina daukan Usain Bolt, eta Barajasko hegazkin istripua atzean utziz, eta, bide batez, ikasturte berriarekin batera datorriguna gogoraraziz: Lehendakariaren kontsulta, futbol liga, emakumeen aurkako erasoak, euskal gatazka eta berari lotutako zirku polizial-judiziala, agintarien zurikeria etengabea... Baina Oñatiko kasuan berri on bat ere ekarri digu ikasturteak: aspaldiko aldarrikapena zen Gaztetxea, eta berarekin, gatazkaren behin-behineko irtenbidea. Luze eta osasuntsu irauñ dezala!

eguraldia



MAXIMOA

+24

MINIMOA

+15

Udaberriko giroarekin hasiko dugu astea. Goizeko lanbro eta lainoaren ostean, eguzkiak indarra hartuko du.

www.euskalmet.net

AUKERA 0 KM DUTEN AUTOETAN

Gure Dota berrituko dugu

(0 Km duten autoak, erdi berriak, gerentziakoak, kortesiazkoak, hilabete gutxitan erabilitakoak)



Yaris



Avensis



Corolla Verso



Auris



TOYOTA

www.euskoauto.toyota.es

EUSKOAUTO

Tel.: 902 34 52 45

Pasai Antxo

San Markos 32 eraikina
Tel.: 943 34 50 80

Elgoibar

Olaso poligonoa 25
Tel.: 943 74 74 17

Bergara

Olabarrena auzoa z/g
Tel.: 943 76 23 85

Olaberria

Yurre auzoa, karob. pol.
Tel.: 943 80 59 24